

ARGIA



ALDAKETA NAHIAK ESPAINIA DU HORMA

HEGO EUSKAL HERRIAN
GARAILE NABARMENA
ELKARREKIN AHAL DUGU ETA
EAJ-RI EGIN DIO 'SORPASSOA'

» GAZTE DI ERRUGBI TALDEA KIROL BARNERATZAILEAN TXAPELDUN

» EUSKARAZKO ON-LINE UNIBERTSITATEA SORTZE BIDEAN

» IÑAKI GOIRIZELAIA ETA ALFONSO CARLOSENA UNIBERTSITATE PUBLIKOAZ




EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12€ BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 6,5€ SOILIK

ARGIA HILERO, HILEAN 3,5€ SOILIK



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

✓ ARGIA
Ezkerreko gure nortu du.

Urte osoko harpidetza

ARGIA

ARGIA astero, hilean 12€ baino ez.
ARGIA hamabostero, hilean 6,5€ baino gutxiago.
ARGIA hilero, hilean 3,5€ baino gutxiago.

Abizena: _____
Izena: _____
Kontakizuna: _____
Posta elektronikoa: _____
Telefonoa: _____
Baita (aurrekoak guztiak): _____



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Espainiako hauteskunde orokorrak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Baleren Bakaikoa Azurmendi
- 20 Eneko Olasagasti
- 21 Iñaki Barcena
Itxaro Borda



Unibertsitate publikoen egungo errealtateaz jardun dugu Alfonso Carlosena eta Iñaki Goirizelaia, NUP eta EHUKo errektoreekin. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 40 BIZI BARATZEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
JOSEP MARIA ESQUIROL
- 54 BERANDUEGI

SAKONEAN

- 14 | Tania Lamarca: "Olinpiar jokoak irabazteak sekulako oihartzuna du kirol minoritarioan ere" / Miel A. Elustondo
- 22 | Kirol barneratzailea: Aurrerantz, baina esku-hartze zabalagoa aldarri / Jon Torner Zabala
- 28 | "Unibertsitate publikoan gizarteari erantzun behar diogu, ez merkatuari" / Mikel Garcia Idiakez
- 32 | Iparraldeko kooperatibak: Sortu, iraun, aldatu / Urko Apaolaza Avila
- 34 | Herri bazkari ekologikoak: On(gi) egin! / Irati Sarasua Arabaolaza
- 37 | Iñaki Alegria eta Iratxe Esnaola (UEU): "UNEDen alternatiba izan nahi dugu" / Onintza Irureta Azkune
- 44 | Jose Rafael Pascual, Bilboko Bandako Zuzendari Artistikoarekin solasean / Judith Fernandez

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko partaidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Ander de la Hoz, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Sara Arruabarrena, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iratiz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:
Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.

Eguzkiaren gaua

Ez, San Joan gaua ez da urteko laburrena, baina ia. Ipar hemisferioan ekainaren 20aren eta 22aren tartean izaten da udako solstizioa; aspaldikoa da hura ospatzeko ohitura? Paganotzat jotzeko bezain aspaldikoa? Ez dakigu, ez baitakigu askorik paganismoaz, are gutxiago duela 2.000 urte genituen ohiturez ere. Nahikoak ditugu gaur eta hemengoak, inguratzen gaituen munduarekiko harremana nork bere erara bizi eta ospatzeko; arizkundar hauek bezala suaren gainean jauzi eginez, konparazio baterako.

Egilea: Irantzu Pastor





Elkarrekin Ahal Dugu garaile nabarmena Hego Euskal Herrian

Lander Arbelaiz Mitxelena

@larbelaiz

428.285 botorekin eta EAJ bigarren alderdiari 142.000 botoko aldea aterata, Elkarrekin Ahal Dugu izan da garaile Hego Euskal Herrian. Espainiako hauteskunde orokorrak alderdi abertzaleentzat plaza zaila izan arren, nabarmentzekoa da lehen aldia dela norbaitek EAJ Bizkaian garaitu duela. “Euskadi aldatzen ari da, alternatiba badago. Astelehenetik aurrera urriko hauteskundeak prestatzen hasiko gara, Jaurilaritza herritarren zerbitzura jartzeko”, adierazi du Nagua Albak hauteskunde gauean. Udazkeneko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetara begira jarrita daude euskal indarrak. Nafarroan bigarren indarra izan dira 94.555 botorekin, iaz baino 13.000 gehiago.

EAJ bigarren indarra izan da Hego Euskal Herrian, Bizkaian eta Gipuzkoan. Ehunekotan gora egin arren, 16.101 boto eta eserleku bat galdu ditu abendutik hona, eta azkenean 5 diputatu eta 286.215 botorekin joango da Madrilera. Badirudi paper garrantzitsua joka dezakeela Espainiako Kongresuan, nahiz eta urriko EAEko hauteskundeak buruan, ezin dion Rajoyri inbestidura oparitu.

Hego Euskal Herrian PPK eta UPNk osatzen duten blokeak 254.073 lagunen babesa lortu eta gora egin du. Ciudadanosen kontura igo da estatu mailan eta Hego Euskal Herrian badirudi tendentzia errepikatu egin dela. Nafarroan eta Araban dira indartsuen popularrak eta unionistak, Nafarroan lehen indarra eta Araban bigarren. Geroa Bai, Nafarroako lehendakariaren alderdiak, emaitza txarrak lortu ditu: Eskuratu dituen 14.289 botoak baino gehiago galduta (16.353), Ciudadanosen ere aurre hartu dio. Aldaketaren indarren gaitetik geratu dira nabarmen errejimen zaharreko alderdiak.



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

PSOEk eutsi egin dio eta Hego Euskal Herrian 221.580 botorekin, 4.736 boz irabaziz. EH Bilduren aurretik geratu izana nabarmentzen hasi dira hedabideetan alderdi honen hainbat ordezkari.

EH Bildu bosgarren indarra izan da eta abenduko emaitza txarrei erreparatuta, beste 35.000 boto galdu dituzte. Orotara 184.092 herritarren babesa eskuratu dute. Nafarroan eutsi dio ongien, nahiz eta Bakartxo Ruiz ordezkariak lortzetik urrun geratu. Aldaketa prozesuan dago ezker abertzalea eta Espainiako hauteskunde orokorrak indar abertzaleentzat agertoki zaila izan ohi diren arren, emaitzek berretsi dute badutela zer hausnartu eta zuzendu.

“EAJk proba gogor hau gainditu du”

ANDONI ORTUZAR, EAJ-KO LEHENDAKARIA

Elkarrekin Ahal Duguk irabazi du EAEko hiru lurraldeetan eta ia 50.000 botoko aldea ateratu dio EAJri. Lehenengoz, gainera, EAJ ez da izan indar bozkatuena Bizkaian eta Elkarrekin Ahal Dugu gailendu zaio hor ere. Hala ere, EAJk bere helburua lortu duela adierazi du Ortuzarrek, “talde parlamentarioa mantentzea”. “Oso polarizatuta” egon den kanpaina, jeltzaleek “proba gogor hau” gainditu dutela eta “lehenengo mailako” erreferentzia direla gaineratu du. “Ahalegina ez da alferrikakoa izan”. **2016-06-26**



ESPAINIAKO HAUTESKUNDE OROKORREN EMAITZAK

Elkarrekin Ahal Dugu formulak funtzionatu du Hego Euskal Herrian

Abenduan bezala, Podemos-Ahal Dugu gailendu da Hego Euskal Herrian –Orain Batarekin elkartuta–, baina orduan baino alde zabalagoarekin. EAJren gotorleku historikoan, Bizkaian ere, irabaztea lortu du, Araban eta Gipuzkoan ez ezik. Abenduko emaitzak apur bat hobetu dituzte PSOEk eta PPk, eta galerak izan dituzte EAJk eta, batez ere, EH Bilduk.

↳ Bizkaia

ALDERDIA	2016	2015	ESERLEKUAK
Elkarrekin Ahal Dugu	178.605	170.728	3 (2)
EAJ	174.874	182.604	2 (3)
PSE-EE	86.134	84.893	1 (1)
PP	78.536	74.560	1 (1)
EH Bildu	67.501	81.704	1 (1)
Ciudadanos	20.491	25.148	0 (0)
ABSTENTZIOA	%31,64	%30,59	

↳ Gipuzkoa

ALDERDIA	2016	2015	ESERLEKUAK
Ekarrekin Ahal Dugu	103.523	98.533	2 (2)
EAJ	84.670	91.359	2 (2)
EH Bildu	69.440	81.257	1 (2)
PSE-EE	51.141	51.764	1 (1)
PP	34.941	33.884	0 (0)
Ciudadanos	11.500	14.608	0 (0)
ABSTENTZIOA	%34,29	%32,60	


↳ Araba

ALDERDIA	2016	2015	ESERLEKUAK
Elkarrekin Ahal Dugu	51.602	48.413	1 (1)
PP	34.162	33.683	1 (1)
EAJ	26.671	28.353	1 (1)
PSE-EE	26.353	25.331	1 (1)
EH Bildu	15.841	21.225	0 (0)
Ciudadanos	8.335	10.512	0 (0)
ABSTENTZIOA	%32,05	%28,85	

↳ Nafarroa

ALDERDIA	2016	2015	ESERLEKUAK
UPN-PP	106.434	102.244	2 (2)
Elkarrekin Ahal Dugu	94.555	81.216	2 (2)
PSN	57.952	54.856	1 (1)
EH Bildu	31.310	34.939	0 (0)
Ciudadanos	20.343	24.969	0 (0)
Geroa Bai	14.289	30.462	0 (0)
ABSTENTZIOA	%29,42	%29,07	


Espainiako Diputatuen Kongresuaren osaketa



ALDERDIA	2016	2015
PP	137	123
PSOE	85	90
Unidos Podemos	71	*69
Ciudadanos	32	40
ERC	9	9
CDC**	8	8
EAJ	5	6
Unidad Popular	-	*2
EH Bildu	2	2
Coalición Canaria	1	1

* 2015ean Podemos eta Unidad Popular bakoitza bere aldetik aurkeztu zen. Podemosen emaitza egotzi diogu koalizioari.

** Convèrgencia Democràtica de Catalunya (CDC) Demodràcia i Llibertat izenarekin aurkeztu zen 2015eko abenduan.



1 + 1 ez da beti bi

Axier Lopez
@axierL

Bigarren parteak ez dira oso maitatuak izaten ez zineman, ezta politikan ere. Marmotaren Egunean bezala, sarri bizi izandako egoera eskasak sortzen duen gogaitasun giroan, amaiera dramatikoak errepikatu da Espainiako Estatuan: ozenak ei ziren aldaketa ahotsak oihartzun baino ez dira ohiko diskurtsoen azpitik. Batzuen ilusioak eta askoren inkesta okerrekin aldatu nahi zuten errealtatea gordin azaldu da: bipartidismoa indartsu dago. PP eta PSOE, biak ala biak beren langa historikoetatik askoz beherago egonik ere, ordezkatzeko alternatibarik oraindik ez da, ez eskuinetik ezta ezkerretik ere. Podemos + IU batuketa tematikoak, gehitu beharrean, beren jaitiera apaltzen besterik ez du lagundu.

Are kezkarriagoa da 8.000.000 lagunek gobernuburu egokiena Rajoy aukeratu izana. Murrizketa, etxegabetzeak, bankuen erreskateak, Mozal legeak, mendeku espetxe politika, LOMCE, Melillako hesiak, erabakitze eskubidearen ukazioa, ustelkeria orokortua, Troikarekiko mendekotasuna... PPK "lortutakoen" zerrenda luzea izanik ere, Pernandoren egia berretsi dute hauteskundeetako emaitzek: egoera gero eta okerragoa izateak izorratuago gaudela baino ez du adierazten, ez beste ezer. Sorpassozaleek zartakoa jaso dute.

Salbuespenen ligan, beste behin, Euskal Herria eta Katalunia buru dira. Madrilen egositako hauteskundeetarako formulak

"periferian" baino ez du garaipena ezagutu. Hegoaldeko kataluniarrek eta euskal herritarrek desberdin bozkatzeko dutela argi utzi eta bi herrietan Podemosen inguruko koalizioak –Katalunian Ada Colauk gorpuzten duen En Comú Podem– lortu ditu boz gehien. Independentismoak ezkerre-rantz egiten jarraitzen du; JxSí koalizioaren itzalak honezkero ezin du hori ezkutatu eta ERCK berriz gora egin izanak agerian utzi du Artur Masen alderdia egun ez dela independentismoaren erreferentzia nagusia. Esanguratsua da Ciudadanosek bere sorterrian babes handia galdu izana, noren eta Fernández Díaz Barne ministroaren alderdiaren mesedetan, filtrazioek katalanen interesen aurka jukutrian harrapatu arren.

Gainerako lurraldeetan urdina da jaun eta gabe. Horren erakusgarri Valentzia eta Galizia. Abenduko hauteskundeetan ilusio berezia piztu zuten PPren gotorlekurik gotorrenetan ezkerreko indarren batuketak lortutako emaitzek. Baina ustelkeria kasuek jositako Rita Barberaren alderdiak ia 80.000 boz irabazi ditu Valentzian; eta Galizian gora egin duten bakarrak popularrak dira. Andaluzian, sozialisten "kortijo pribatua" ere irabazle atera dira popularrak.

Gobernu berria osatzeko panorama aurretik bezain korapilatsua da, baina aldaketa ahotsei ura sudur azpira igorazi die marea urdinak. Mariano Rajoyri Moncloan bizitzen jarraitzea baimenduko liokeen PSOEren abstentzioak, "Espainiako egonkortasunaren izenean", txartel asko eskuratu baititu.

EKONOMIAREN TALAIAN

Irtenbide politiko, ekonomiko eta sozialak



Juan Mari Arregi

Hainbeste hilabetez Espainiako Estatuan hauteskunde kanpainan egon ondoren, ordua da agintzen duten politikariek euren promesak bete ditzaten. Eta oposizioan geratzen direnek ere eskatu dezatela promesa horiek betetzea. Seguruenik ez da izan Espainian beste kanpainarik arazo ekonomiko, laboral eta sozialak hain presente egon direnak. Eskuinetik ezkerreko, denek azpimarratu dute langabeziari irtenbidea eman behar zaiola –batez ere gazteen artekoa–; pobrezia, bazterkeria soziala, menpekotasuna, prekarietatea, pen-tsioen duintasun falta eta emigrazioa ere denen ahotan egon da.

Denek aipatu dute gutxieneko soldata hobetu behar dela. Denak dau-de iruzur fiskalaren eta paradisu fiskalen kontra. Denek esan dute doitzeko politikak aldatu behar direla eta Europarekin zor publikoa eta defizit muga negoziatu behar direla. Denak azaldu dira aberatsengandik gehiago eskatuko duen erreforma fiskalaren alde. Batzuek zergak jaitea agindu dute (PFEZ) eta beste batzuek abeatse, enpresei eta multinazionaliei igotzea. Euskal Herrian, gainera, denek egin dute industriaren aldeko apustua, batez ere arriskuan dagoen siderurgiaren alde.

Hauteskundeetako promesa horiek guztiak beteko badira, horretarako politikak ezartzeko unea heldu da orain. Hitza ematen duenak ezin du hitza jan, eta gobernutik nahiz oposiziotik beharrezkoak diren neurriak hartu beharko lituzke. Gobernutik, behar izanez gero aurreko legeak ere aldatuz, eta oposiziotik, etengabe exigituz promesa horiek bete daitezela. Oposizioan geratu denak, gainera, aukera dauka bere eskakizunek gobernuan eragina izan dezaten. Herritarren ordua ere bada, jakina, gure botoarekin zer egiten den zaindu beharko genuke.



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

UPN-PP irabazle Nafarroan, eta Geroa Bai galtzaile

NAFARROA. Eserlekutan, 2015eko emaitzak errepikatu dira Foru Erkidegoan, baina bototan gora egin dute UPN-PP, Elkarrekin Ahal Dugu eta PSNk, eta behera berriz, EH Bildu, Geroa Bai eta Ciudadanosek. Azpimarratzekoa da Nafarroako lehendakariaren alderdiak izan duen porrota –boto gutxien lortu dituenak da–. Daniel Innerarity koalizioako zerrendabururaren esanetan, herritarrek ez dute alderdia “Madrilen aldaketa egitearekin identifikatu”. Emaitzek Nafarroako Gobernuaren gestioarekin zerikusirik al duten galdetuta, ezetz erantzun du Innerarityk. “Kanpaina guztia lauren artean planteatu da telebistan eta testuinguru horretan guk apenas izan dugun ikusgarritasunik”. Gaineratu du Uxue Barkosen Gobernuak “akordio pragmatiko oso serioa” duela oinarri eta ez duela uste hauteskundeotako emaitzek horretan eragina izango dutenik.

Alderdi abertzaleek, atzera

Argia

@argia

Elkarrekin Ahal Dugu koalizioa nagusitu da Hego Euskal Herrian, botoetan eta diputatueta. Alderdi abertzaleen boto galera abendukoa baino are handiagoa izan da eta EAJk, EH Bilduk eta Geroa Baik gutxira 66.000 boto baino gehiago galdu dituzte.

EAJ, feudorik gabe
2015eko abenduan EAJk 6 eserleku lortu zituen Hego Euskal Herrian eta 5 lortu ditu oraingoan. 15.000 boto pasatxo galdu ditu sei hilabeteotan, eta datu esanguratsua: Bizkaian ere, ez da lehenengo indarra izan.

EH Bilduk gehiago espero zuen
“Ez dugu lortu esperatu genuen emaitza”. Halaaxe onartu du Marian Beitialarrangoitia Gipuzkoako zerrendaburuak. Bere hitzetan, koalizioak lanean jarraituko du, “gure proiektua ez delako epe laburrekoa”.

Geroa Bai, erdira ere ez da iritsi
Abenduan lortu zituen botoen ia %54 galdu ditu Geroa Baik Nafarroan, eta proportzioan galera handiena izan duen alderdi abertzalea da. Koalizioak ez du eserlekurik izango Madrilen.

EMAITZAK



34.375

boto galdu ditu EH Bilduk Hego Euskal Herrian, pasaden abenduarekiko, eta lurralde guztietan jaso ditu boto gutxiago. Hala ere, duela sei hilabete lortutako 2 eserlekuak mantenduko ditu Madrilen.

116.031
boto galdu zituen 2015ean EH Bilduk, 2011n Amaiurrek lortu zituenekiko.



PSE-EE/PSN-K EUTSI DIO

PSEk eta PSNk botoak irabazi dituzte 2015eko eta 4 eserlekuak mantendu dituzte. Idoia Mendia EAEko idazkari nagusiaren hitzetan, “batzuen aurreikuspen beltzak” gezurtatu dituzte emaitzek eta nabarmendu du Espainian PSOE dela “ezkerraren erreferentzia nagusia”.



EN COMÚ PODEM GARAILE

En Comú Podem-ek irabazi du Katalunian eta alderdi independentistek emaitza berdintsua lortu dute. Kataluniako eta Espainiako emaitzak ikusirik, Generalitateko presidentek adierazi du independentziarako bide-orria mantenduko dutela: “Ez dugu ezer aldatuko; alderantziz”.



CIUDADANOS KANPOAN GERATU DA

Hego Euskal Herriko lurralde guztietan galdu ditu botoak Ciudadanosek, gutxira 14.000 pasatxo. EAE eta Nafarroako ordezkariak ez du izango Madrilen.

Beste lau urte korapilatsu datoz



Xabier Letona

@xletona

ESPAINIAKO ESTATUKO urdin zabal horrek beltz utzi du etorkizuna, hori da hauteskunde orokor hauetatik atera daitekeen ondorio nagusia. Beltzak izan dira PPren azken lau urteak ikuspegi sozial eta aurrerakoi batetik begiratuta, eta joera bera nabarmenduko da datozen lau urteetan. Gobernu eraketarako zenbakiak korapilatsuak dira oraingoan ere Madrilen, baina bigarren itzuli honek argiago utzi ditu kontuak eta, matematikoki posible bada ere, oso gaitza da irudikatzea PPren gobernu alternatiborik.

Koalizio handiaren gobernuak ere indarra galdu du PSOEek beherantz eta PPK gorantz jarraitzen duten honetan. Emaiza logikoa da PSOE abstenitzea eta PPri Moncloako giltza uztea, honek gutxiengoan gobernatu dezan. Gehien- go osoarekin baino gaitzagoa izango zaio orain kaioari eta gai sozial askotan akaso ez da aurreko legegaldian bezain basatia izango, baina oinarritzko gaietan –ekonomia, lurralde antolaketa, Europar Batasuna...– behar adinako sostengua izango du Ciudadanosen eta PSOEren aldetik.

ESPAINIA beltz horretan bi puntu nabarmentzen dira berriz ere, Katalunia eta Hego Euskal Herria, baina hauek ere ez ohiko moduan. Nabarmentze hori beti ikuspegi abertzalekoa izan bada, oraingoan Elkarrekin Ahal Dugu (EAD) nagusitu da bietan, bihotzean Estatua- ren logika daraman indar politikoa. Euskal politikaren betaurreko zaharrak ateratzen dituenak, esaterako, esango du “boto espainolista” gailendu dela; betaurreko berriek azpimarratuko dute, Euskal Herriaren erabakitzeke eskubidearen aldeko indarra dela.

Edozein modutan, Madrilen euskal ahots nagusia Elkarrekin Ahal Dugure-


na da, eta hori sinbolikoki kolpe esanguratsua da ahots hori bereganatu ohi duen EAJrentzat. Iragan abenduan dugu iltzatua begirada, baina ikuspegi historikotik emaitza itzela da EADrena, hain alderdi berria izanik Hego Euskal Herrian horren emaitza ikusgarriak lortzea fenomeno erabat ezohikoa baita; ezin uka, dena den, Espainian indar berriak lortutako emaitzak hemengo arrakasta iluntzen duela, logika estatalista duen indar batean normala den moduan. Eta hala ere, garaipenak erraldoia izaten jarraitzen du: EAEn lehen indarra bototan eta eserlekutan, –Bizkaian EAJren aurretik!– eta Nafarroan bigarren indarra, UPNtik gertu. 2011n inork ezingo zukeen halakorik irudikatu.

Madrilen euskal ahots nagusia Elkarrekin Ahal Dugurena da eta hori sinbolikoki kolpe esanguratsua da ahots hori bereganatu ohi duen EAJrentzat

NAFARROAKO aldaketaren gobernuak eratu ahal izateko Ahal Dugu giltzarri izan zen, eta orain bera da honen sostengu garrantzitsuena. Hala ere, aldaketaren perspektibatik, emaitzek irudi gogorak utzi dituzte Nafarroan: abenduko emaitza berdintsuak dituzte UPN-PP, PSN eta C's-ek (2.000 boto gehiago orain), baina aldaketaren gobernuak sostengatzen duten indarrak baino 40.000 boto gehiago.

EH Bilduk ez du asko galdu erresuma zaharrean, baina eserleku bat buruan duenarentzat 3.000 boto gutxiago erdiesteatsigarria da. Zeresanik ez botoen erdia galdu duen Geroa Baiarentzat; argi da ez direla hauek filosofietarako garaiak. Ados, ezin dira hauteskunde motak konparatu, baina zenbakiak hori dira, nahi diren irakurketak egiteko. Aldaketaren Gobernuari irudi latza geratu zaio: Uxue Barkos lehendakariaren alderdiak botoen %4,28 du. Ez da erraza izango bere alderdiak adinako sostengu txikia duen gobernu lehendakariarik aurkitzea.

EZPAL ugari atera daitezke hauteskunde hauetatik, baina merezi du arreta jartzeari EH Bilduren berak jarraitzen duelako izaten galtzailerik handiena. Bazuen iragan abenduko ataka larritik ateratzen hasteko esperantzarik, baina ez da halakorik izan. Ez enfoko sozial handiagoak, ez hautagai aldatetarik, ez Abianek, ez Arnaldo Otegi, ezker ez du eragotzi zulo beltzak gehiago irentsea: osteraren 35.000 boto galdu ditu (2011n 333.000 eskuratu zituen, abenduan 219.000 eta orain 184.000). Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako botoak bestelako joera izaten du, baina ezin uka EH Bildurena moduko joera oso arriskutsua dela edozein alderdiren etorkizunarentzat. ■



Idinthakaraiko andreak dira nuklearren aurkako aitzindariak Indian



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Indiak 21 errektore nuklear dauzka dagoeneko argindarra ekoizten zazpi zentraletan, sei gehiago ari da eraikitzen eta agintariak aipatzen dute 2032rako labe atomikoen ahalmena gaurkoena halako sei izatea, erregai gehiena atzeritrik inportatu behar izan arren. Ofentsiba horren aurrean zenbait erakunde eta herrik diraute borrokan, tartean Kurdankulam zentralaren ondoan bizi direnek, emakumeak gidari.

Arrantzarako egurrezko ontzi txikiak lehorreratuta dauden hondartzan, mila-ka jende ur bazterrean protestan, urrutian zentral nuklearra ageri da, jendeen buru gainetik poliziaren hegazkin bat manifestazioa sakabanatu nahian... Neska polit ilehoriak eta furgonetan etorritako mutiko bizardun sendak ez, baina larruazal beltzarako herritar txirotak nuklearraren aurka garrasika, ez da "Atomkraft? Nein danke!" dion eguzki irribarretsuaren gerizpean espero zenezakeen matxinada. Indian zaude, eta hemen "Nuklearrik ez, eskerrik asko" oihukatzen dute arrantzale gizonezkoek eta eliza katolikoan babestu diren emakumeak.

Jendeen haserrea eta agintarien erantzun bortitza Amirtharaj Stephenek argazkitan bildu ditu bere blogean: "Koodankulam: A Nuclear Plant In My Backyard". Argazkilariak aitortzen duenez, gaztetan bera ere ez zen askorik kezkatu atomoaren arriskuez: aitak lan egiten zuenez nuklearrentzako ur astuna -deuterio oxigenoa ere deitua- ekoizten zuen lantoki moderno batean, inolako lanjerri ez zela irakatsi zioten umetatik.


Amirtharaj Stephen bezala, Kudankulam eskualdeko jendeak ere ez ziren gehiegia larritu ondoan eraikitzen ari zitzaizkien zentral nuklearrak 2011n Japoniako Fukushima hondamendia gertatu zen arte, lurrikararen eta batik bat ondorengo tsunamiaren indarrez. Kudankulam Indiako beheko muturrean

dago, Tamil Nadu estatuan, eta berehala oroitzen ziren 2004an itsas bazter hau suntsitu zuen beste tsunami handiaz: zer gertatuko zen uranioz kargatuta aurkitu balu 2011n abian jartzeko ari ziren zegoen lapiko erradioaktiboa?

Stephenek argazki batean ageri dira milak herritar eliza katolikoaren arian babestuta agintariak ezarritako setio garaian, bestean gauez kanpatu-rik -Gipuzkoa Zutikekoek ez dute deus asmatu- hondartzan zentral inguruan, poliziak makilaz sakabanatzen jendeak, emakumea ur bazterrean jaiki ezinik polizien artean, emakume gehiago eliza barruan gose greban...

Protestarik handienak Idinthakara arrantzale herrian burutu direnez, bertatik kronika bidalia du *The Guardian* egunkarira Vidhi Doshi kazetariak: "The lonely struggle of India's anti-nuclear protesters" (Indiako protestalari anti-nuklearren borroka bakartia), honela hasten dena: "Emakumeak dira buruzagiak Tamil Nadu estatuan zentral nuklearraren kontrako protestan; baina Indian jende gutxi daki zein herritakoak diren eta bakarrik utzi dituzte beren borrokan".

Ekainaren 6ko kronikan Vidhi Doshik kontatu du nola bost emakumek egun horretan ekin dioten gose grebari eguneroko lanak utzirik. 2011n hasitako txandakako gose grebaren 1.754. eguna zen, Lourdes Matha eliza katolikoan. 73 urteko Celinek esan dio: "Ez dago gobernu bakar bat, ez alderdi politiko alerik



ere, gure alde azaldu denik. Andra Marik ez beste inork ez digu laguntzen".

Idinthakara herrian, Indiako hego muturreko Tamil Nadu estatuan, 1980an hasi ziren zentral nuklearraren kontrako lehen protestak. 1988an Rajiv Ghandi eta Mihail Gorbatxev presidentek sinatu zuten Sobiet Batasunaren laguntzarekin bi errektore eraikitze ituna. Sistema sobietarra hondoratzean proiektua linboan galduta geratu zela zirudien arren, berpiztu eta obrak hasi ziren 2002an.

Atomoa arrantzale txirotan hondartzan

Kudankulamen ur astuna eta bestelako gaiak lehorreratzeko kai berria eraiki ostean, agintariak 2008an iragarri zuten beste lau errektore gehiago eraiki behar zituztela. 2013an jarri zuten abian lehenbiziko errektorea eta 3 eta 4.aren eraikuntza lanak 2016 otsailean hasi. Denetara konplexuan 6,8 GWeko potentzia ekoiztekoan dira. Celinek esan duenez, "nola onartu dezakegu bigarrena abian jartzea lehenbizikoak hainbeste arazo tekniko eman ditue-nean?".

Narendra Modiren gobernuak agindu du argindarra eramango duela oraindik ez daukaten 300 milioi indiarren etxetara. Indiak, esku lan merkeari esker ekonomia globalizatuan azpi kontraten artean leku bat lortu duelarik, elektrizitate eske handia dauka. Txina eta AEBek beste inork ez du Indiak adina energia



Amirtharaj Stephenen argazkiak Kurdankulamgo zentralaren kontrako protestaren irudi bat bildu du. Argazkilariak berak dio oinean: "Xavieramma, Idinthakaraiko herritarra, laguntza eske oihuka poliziek itsasoraino bultzaka eraman ostean. Ondoren poliziek atxilotu egin zuten eta 16 delitu gaineratu, tartean batzuk larriak: sedizioa eta nazioaren kontrako konspirazioa". 2011tik txandakatzen dira Idinthakaraiko emakumeak eten gabeko gose greban.

kontsumitzen. 120.000 milioi dolar gastatu du iaz energiazko inportazioetan.

Gobernuak nuklearra aurkeztzen du energia gosea asetzeko soluziotzat, horretarako antolatu zuen Nuclear Power Corporation of India. Baina inbertsio itzelezko horiek arren, atomoak ez du asetzen indiarren beharren %2 baino. SP Udayakkumar ekintzaile antinuklearrak dio: "Indiak nuklearretatik lortuko balu behar duen energiaren erdia edo herena, orduan arrazoi bat edukiko zuten aldekoek. Baina hainbeste urtean Idinthakaraikoak bezalako jendeak jipoitu eta zanpatzen aritu ostean, galdetu behar da ea ezertarako balio izan duen".

Atomoaren aldeko temaren sustraie-tako bat Udayakkumarrek dakusa prestigio nahi batean: "Nori egiten diote mesede zentral nuklear horiek ez bada horiek Indian eraikitzen dituzten atze-

rriko konpainiei?". Prestigio bila agintariak, energia zentraletik urruneko industriari saldu eta inguruko herritarrak oraindik argindarrrik gabe.

1989an Sobiet Batasuna hondoratuta eta 1991n Rajiv Ghandi erahila, 1997an Deve Gowda eta Boris Yeltsinek sinatu zuten proiektu nuklearren jarraipena. Geroztik, Kanada, AEB, Australia eta Japoniak ere hartu dituzte agenda nuklear indiarren zatiak.

Zalantzarik gera ez dadin, Barack Obamak Indiarako azken bisitan sinatu du itun bat, zeinaren bidez edozein istripuren aurrean konpainia amerikarren erantzukizunak mugatzen diren.

Bitartean, Idinthakarain segitzen dute Kudankulam zentralaren kontrako protestek. Batzuk nazkatu edo nekatu dira, aktibistek herrira arazoak ekarri dituztelakoan, edo etsai indartsuegi aurre

egitea alferrik delako: "Munduko estatu handiak sartuta daude honetan, guk nola geldiaraziko ditugu?".

Beste askok protestak indartu dituzte Fukushima hondamendiaren ostean. Ordainetan, poliziak gero eta bortitza-go jipoitzen ditu. Agindu zituzten garapen proiektuak deusetan geratu zaizkie agintariei, inork ez du inoiz ikusi larrialdiko plan bakar bat.

2011ko irailaren 11n gose greba masiboari ekin zioten Idinthakarai eta Kudankulam herrietan, agintarien bortizkeriari Ghandiren metodoekin erantzuteko. Urteotan poliziek bost herritar hil eta sail handi bat zauritu dute, bestelako zigor administratiboez gain. Vidhi Doshik informatu duenez, ia bost urteren buruan emakumeak txandakatzen dira baraualdian Lourdes Matha eliza katolikoan. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Tania Lamarca, gimnasta ohia

«Olinpiar jokoak irabazteak sekulako oihartzuna du kirol minoritarioan ere»

Urrezko domina irabazi zuen oraintxe hogei urte, Atlantako (AEB) olinpiar jokoetan gimnasia erritmikoan, taldekako modalitatean. Podioan malkotan ikusi genuen hamasei urteko neska txikia emakume da gaur egun.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Gimnasia erritmikoa egiten dutenen gainean beti esaten dena: "Kirol gogorra, horratik! Hainbeste ordu entrenatu beharra ere!"

Horixe esaten dute lehenena, bai. Gogorra da, baina bizian zehar ondo egin nahi dituzun gauza guztiak dira neke, eta gogor. Egia da ordu mordoa entrenatu behar izaten dutela gimnastek, denbora mordoa eskaintzen diotela entrenatzeari, baina ezertara emanda bizi den edonork orduak eta orduak sartu behar ditu, ez dago besterik.

Astean hamalau entrenamendu ordu ere egiten ditu DBH ikasten ari den gimnastak...

Bai, beste kirol askotan baino ordu gehiago dira, dedikazio handia, baina kontuan izan behar da minutu eta erdikoa dela gimnasta baten ariketaren iraupena. Minutu eta erdi horretan ez duzu oker txikiena egiteko marjenik. Gimnasia ez da futbola, ez dira 90 minutu. Futboleko, adibidez, baduzu oker egiteko marjena, batean oker egin duzuna, bestean zuzentzeko aukera izan dezakezu, gimnastian ez bezala. Gimnastak ez duenez oker egiteko marjenik,

ariketa guztiz mekanizatuta, guztiz barneratuta behar du, eta hori ez da lortzen errepikapen bidez baizik. Errepikapen bidez, eta lan zentzuzko baten bitartez.

Txikitan Gasteizen entrenatzaile izan zenuen Agurtzane Ibargutxik esan dit joandako ura duzula Atlantan urrezko domina irabazi zenuen garaia.

Joandako ura den... Ez dut garai hura zeharo atzean utzi, baina orrialdea pasatu behar izan dut, esan ohi denez. Beste bizitza bati ekin nion harrezkerro, gimnasia utzita. Atlantan urrezko domina lortu aurreko eta ondoko bizialdiak bi dira, ez daude lotuta. Garai hartan, oroitzen naiz, barneratu behar izan nuen aro bat ixten zela eta beste bat irekitzen. Gaur egun beste patxada batekin ikusten dut orduko, jakina. Errazagoa da orain: orduko aro hari esker naiz, naizena, baina aurrera egingo banuen aro hura itxi behar izan nuen.

Erraza izan ez bazen ere, erretiratu egin zinen. Kirolari askok ez du horretan asmatzen.

Baliteke. Kirol bizitzan iltzatuta gertatzeko arriskua dugu, eta kirol bizitza ez

da egiazkoa, ez da benetako bizitza. Bizialdi zoragarria da, baina ez da erreala. Nire kasuan, Espainiako selekzioa uztera behartu nindutenean eta Gasteizera itzuli eta bertan lurrartu nuenean ekin nion benetako bizitzari.

Hain zuzen, bizitza hura kontatzen duzun liburuan –*Lágrimas por una medalla* (Malakoak domina batengatik)–, goren mailako kirola eta lehia utzi ondoko abandonuaz ari zara.

Zortzi urte dira liburua publikatu nuenetik, eta aurrera egin dut geroztik, baina publikatu nuenean horixe nuen helburuetako bat, kirola utzi ondoko abandonua galaraztea, saihestea, nahiz eta oraindik gertatzen den. Kirolariak, bere kirol bizitza uzten duenari, hutsune handi bati egin behar dio aurre. Kirolaria bere bakardadean! Horixe gertatu zitzaidan niri: goren-gorenean egon nintzen, Atlantako podioan, ordu arte besterik egiten ez nuela, eta eguzkia ezkutatu orduko eta ilargia azaldu baino lehen, etxean nengoen, Gasteizen, goian zerua eta behean lurra. Neke da hori barneratzen. Jendea behar duzu inguruan bide horretan laguntzen, gainerakoan, lanak.



Tania Lamarca Celada

1980, Gasteiz

Gimnasta izana. Espainiako gimnasia erritmiko txapelketa irabazi zuen 1994an, eta ondoko urtean Espainiako selekzioarekin ari zen entrenatzen, olinpiar jokoetako taldekako modalitatea helburu. Hara bidean, urrezko bi domina eta hiru zilarrezko irabazi zituzten munduko txapelketetan, eta bi zilarrezko eta hiru brontzezko Europakoetan. 1996an, urrezko domina olinpikoa irabazi zuen Atlantan, kirolariak lezakeen saririk gorena. Sallent de Gallegon (Huesca, Aragoi) bizi da, kirol teknikari lanak eginez, baina Gasteiza itzulera prestatzen ari da.

Hogei urte dira Atlantako urrezko domina irabazi zenutenetik, eta ekitaldiak ere antolatu dituzte han-hemen hura oroitarazteko. Ez duzu erraza aro hura itxiztat ematen.

Aro hura itxia dago, baina maila pertsonalean. Nola emango dute, bada, itxiztat, gimnasia lortu den domina olinpiko bakarra izanda? Hartaz oroitu behar dira, eta ondo iruditzen zait. Lagungarri gertatzen zait nire lanean, eta gimnasiaren bidez lortu nuenari esker egiten dut lan gaur egun. Alde horretatik ez dut aro hura itxi, baina maila pertsonalean garbi esan behar izan nion neure buruari: "Domina olinpikoa irabazi duzu, gimnasia izan da zure bizitzaren ardatz, baina orain beste bizialdi bati ekin behar diozu".

Urrezko domina olinpiar jokoetan. Horixe izango da maximoa, ala?

Bai... Oroitzen naiz behin, ohiko ekitaldi horietako batean, aktore talde batekin gertatu nintzela. Batak bestearen aurkezpenak egin genituen eta aktoreetako batek ezagutu egin ninduen; nor nintzen bazekiela, esan nahi dut. "Domina olinpikoa? Nik Oscar saria jasotzearen pareko da hori!". Halaxe esan zuen, balio horixe ematen zion. Eta egia da. Mundutxo horretan bizi zarenean ez zara jabetzen, ez dakizu zer lortu duzun. Nik, esaterako, askoz ere balio handiagoa ematen diot orain urrezko domina hari, orduan baino. Kirol mailan lortu daitekeen maximoa da domina olinpikoa.

Urrezko domina olinpiko hori dugu Tania Lamacaren aurkezpen-txartela?

Beti esaten dudanez, domina horri esker aurkezpen-txartel pertsonala daukat. Ez da nire aurkezpen-txartela, baina ditudan adjektiboak domina horrek eman dizkit, kar, kar...

Hamasei urte zenituen Atlantan podiora igo zinenen. Neskak hutsa, oraindik.

Bai, neskak hutsa! Egia esan, ez nekien zer neukan lepotik zintzilik. Liluratura nengoen, hori bai, telebistaz ikusi izan nuen domina zelako, baina besterik ez. Gurasoei hots egin nienean, horixe esan nien: "Lepotik zintzilik daramat! Kirolari guztiek duten domina!". Jakina, kirolari guztiek ez zuten gisako dominarik, urrezkoa, baina nik horrela ikusten nuen orduan. Atlantatik itzultzean, ni baino kirolari zaharragoekin gertatu nintzenean, orduantxe hasi nintzen



"Orain dela hogei urte ez bezala da gauza. Gimnastek beren bizitza dute gimnasiatik kanpo ere: beren familia dute ondoan, beren adiskide eta lagunak dituzte, beren ikasketak..."

urrezko domina hartaz jabetzen. Ez, egiatan, une hartan ez nekien zer lortu nue, kar, kar...

Negarrez, domina batengatik. Beste inork ez zuen negar egin, malkorik isuri?

Ez. Hunkitu bai, baina nik beste inork negarrik ez. Malko-erraza naiz, izan ere.

Zure ibilbidearen gorena, podio huraxe. Bost urtetan lotu zintzaizkion gimnasia bideari, hamasei zenituela olinpiar domina, utzia zenuen goren graduako kirola hamazazpi urtetan.

Begira, neska koxkorretan gimnasia egiten hasi nintzenean nik ez nuen uste apartekorik, alegia, gimnasta ona izateko irrikarik ez nuen, gimnasta ona izango nintzela ere ez nekien, goi-mailako lehiaketan jardutea ere ez zegoen nire gogoan. Poliki-poliki etorri zen dena, ni jabetzeke. Ondo pasatzen nuen gimnasia eginez, eta arratsalderoko gustu-

ko denbora pasa bihurtu zen azkenean. Nire kasuan, oinarrikoa izan da beste-lako pretentsiorik ez izatea. Nik ez nuen txapeldun olinpikoa izateko asmorik, gurasoei ere ez zuten horrelakorik beren gogoan. Ni, besterik gabe, bideari lotu nintzaion: erraztasuna nuen, txapelketetara joaten nintzen, ongi pasatzen nuen... eta ongi pasatzen nuenez, entrenatzen segitzen nuen.

Eta, halako batean, hamalau urtetan, Espainiako gimnasia erritmiko txapelduna izan zinen.

Urte hartan bagenuen esperantzarik. Goiko postuetan ibili nintzen urte hartako Euskadiko lehiaketetan, eta lehen bosten artean geratzeko asmoa genuen, edo espektatiba, behintzat. Baina ni txapeldun izaterik ez zuen inork espero. Ariketa ona egin nuen, orde, besteek baino hobea betiere, eta txapelketa indibiduala irabazi nuen.



17 urterekin goi mailako kirola utzia zuen Lamarcak. Pixka bat lehenxeago, 1996an, urrezko domina irabazi zuen Atlantako olinpiar jokoetan. Argazkian eskuinetik lehena da.

Hala ere, ez zintuzten Espainiako selekziara eraman, zure garaiera gora-behera: metro eta berrogeita hamalau zinen, eta metro eta hirurogei eskatzen zuten.

Kirol frogaraz eginarazi ziguten, baina garaiera zela-eta, atzera bota ninduten. Orain ez dute gutxieneko garaierarik eskatzen, baina kasik eskatu beharrik ere ez dago. Oraingo gimnastak dorrea baino luzeagoak dira-eta. Zeharo aldatu da dena orduz gero. Orain dela hogeitazuzen urte ez bezala da gauza. Esaterako, gimnastek beren bizitza dute gimnasiatik kanpo ere: beren familia dute ondoan, beren adiskide eta lagunak dituzte, beren ikasketak... Zorionez, gaur egun, gainerako kirolen pareko da gimnasia.

Pareko, baliteke, baina zuen olinpiar dominak munduko txapelketa irabazteak baino gehiago balio du, zenbait kiroletan ez bezala.

Kirol mailan, kirolarioi dagokigunez, gauza bera dira olinpiar jokoak eta munduko txapelketak. Lehiakideak ere bertsuak gara. Baina zeharo bestelako oihartzuna dute olinpiar jokoek eta munduko txapelketek. Kirol minoritario guztien gaitza da: munduko txapeldun izateak ez du oihartzunik. Aldiz, olinpiar jokoak irabazteak sekulako oihartzuna du kirol minoritarioan ere. Horretan, hutsetik hasten gara kirol guztiak: gimnasia, tenislaria, futbolaria, atleta... maila berean gaude, domina bera dugu guztioi helburu, oihartzun bertsua izango dugu denok.

Bakezkoak

“Orain pozik ikusten ditut gimnasia erritmiko saioak. Garai batean nostalgia handia izan nuen, lehiaketaren mira handia nuen. Entrenamenduak ez ezik, lehia. Maite nuen lehia, adrenalinarekin zera hori, beharbada... Baina atzean utzi nuen hori ere, eta orain, gimnasten ariketak ikusi eta gozatu besterik ez dut egiten, gozatu”.

Beldur eszenikoa

“Inoiz, jendaurrean jardun behar eta beldurra sentitu izan dut. Horrelakoetan, pentsatzen dut: ‘Jende mordoaren aurrean jardun dut gimnasiako itzulipurdiak egiten eta, orain nerbiostu? Pikutara!’”.

Liburu asko ospina egin zenuen goi-mailako lehia utzi zenuenean, edo utzarazi zizutenean. Beste ikusmolde bat duzu orain.

Liburuak badu alderdi ospin eta negatibo hori –hein batean, bederen–, baina nik transmititu nahi nuena zera zen, ahal izango banu, berriz egingo nukeela bidea: esperientzia bakana izan da, guztiz positiboa nire bizitzan, alderdi negatibo guztiak gorabehera. Goi-mailako kirola gogorra da, eta nik ere bizi izan nuen hori: familia eta lagunetatik urrundu beharra, egunean zortzi ordu ere entrenatu beharra, hau, hori eta hura, baina nik ongi pasatzen nuen gimnasia egiten, ez nuen horretarako obligaziorik. Disfrutatu izan ez banu ez dut uste bertan geratuko nintzatekeenik. Nik uste latzagoa izan zela gurasoentzat, niretzat baino: bazekiten zortzi orduz gogor entrenatu besterik ez nuela egiten, beraingandik urrun, halako zentro batean, eta ez zen erraza. Ni, azken finean, gustuko gauza egiten ari nintzen.



Azken hitza: Agurtzane Ibargutxi

"Harekin gertatu izan ez banintz ez nukeen harrezkero lortu ditudan hainbat helburu lortuko. Agurtzane Ibargutxi, nire entrenatzailea txikitan, oinarria jarri zidana".

Gorenean zinen egun batean –urrezko domina paparrean–, kanpoan zinen bihar-munean –goi-mailako kirol mundutik lekora–, benetako bizimoduari ekiteko premian.

Denetarik izan dut: hasteko, baxua nintzelako ez ninduten hartu nahi izan; azkenean, gizona nintzelako, behar baino pisu handiagoa eman nuelako, bota ninduten. Kar, kar... Baina hortik ere franko ikasi nuen. Erretiratzeko garaia oso konplikatu da kirolariaren kasuan. Alegia, berak erabaki ez duen momentuan erretiratzea –dela lesioa izan duelako, edo erabaki tekniko bat delako tarte–, oso-oso konplikatu da. Besterik da norberak erabakitzea eta prestatzea kirola uzteko momentua.

Zure kasuan, teknikarien erabakiak behartu zintuen uztera.

Eta aurre egin behar izan nion egoera berriari. Hemezortzi urte nituen goi-mailako kirola uztera behartu nindutenean,

baina gainditu nuen egoera, eta gaur egun, orduko hark orain eguneroko bi-ziak sortzen dizkidan egoera zailei aurre egiten irakatsi zidan. Ikasketa prozesu gogorra izan zen, oso, eta horrexegatik egin nuen liburua. Uste dugu kirolaria erretiratu, eta egin duela bizitza. Eta ez da horrela. Hemezortzi urte nituen nik, kirol mailan gorena lortua nuen, baina Gasteiza itzuli eta ez nuen ezer.

Zailtasunak bizimodu errealar berrekiteko sasoian, familiarekin eta lagunartean.

Nire lagunak unibertsitatean ari ziren, eta ni, aldiz, institutuko ikasketak egin beharrean nengoen artean, ni baino gazteagoak zirenekin batera. Ez zen erraza. Etxean ere, desorekak sortu ziren: hamalau urte nituela joan nintzen etxetik, eta hemezortzirekin itzuli. Ume joan nintzen, gazte etorri, eta hor ere izan zen hutsune bat bete beharrekoa. Oso gauza konplikatu izan zen, benetan.

Atlantako olinpiar jokoetako oroitzapen bat, Tania.

Inaugurazio egunean estadio olinpikoari itzulua egin genion denbora. Askoz gehiago kostatu zitzaidan itzuli hura, gimnasiako ariketa egitea baino. Azken finean, nire lana egitera irten nintzen tapiz gainera, banekien lan hura egin, horretarako entrenatuta nengoen –ohiko nerbioak gorabehera–, eta aldiz, kirolari guztiekin batera estadio olinpikoari itzulua egitea zirrargarria gertatu zitzaidan. Oroitzapen horixe dut. ■

**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

Gasteizen
euskarazko hauek
ez galdu



euskara, zure frekuentzian

Txotxongiloak

Auzokideak

Panta Rhei - Eginaren Eginez
Uztailak 17, 19:00, Aihotz plaza
+ 6 urte

Marie

Marie de Jongh
Uztailak 24, 19:00, Martin Ttipia lekua
(Fraí Zacarias kalearen atzealdea)
Familia ikuskizuna, +5 urte

Oihaneder euskararen etxea

Nola? Dokumentala *

Fermin Muguruzaren lana
New Orleansko kultura musikaz
Uztailak 1, 19:00

Azkaiter Pelox + The crazy wheels band *

Kontzertuak
Falerina lorategia
Uztailak 8, 20:00

*Jazzaharrean jaialdiarekin elkarlanean

Kortxeak & krispetak zikloa

Musika Falerinan eta zinema harresian
Filmak bertso originalean eta azpitituluak
euskaraz:

• Uztailak 15

Sky Beats-en kontzertua, 20:00

Amy dokumentala, 22:00

Amy Winehouseren inguruko lana

• Uztailak 22

Sustrajah band-en kontzertua, 20:00

Marley dokumentala

Gasteiztarrek arraun the world

Bidali 2016ko udako bidaiekin argazki
eta testu kronikak eta irabazi
asteburu pasa kulturala
Durangoko azokan!
Gauekoak-ekin elkarlanean
Ekainak 22 - Irailak 22

Euskaraz bizi eguna

Uztailak 30, Aihotz plaza

Txosnaren inaugurazioa. 12:30

Heldu Buruari saria

Dantza taldeen emanaldia. 13:00

Indarra, Gasteiz

Sa Bodega, Ibiza

Kontzertuak. 22:00-02:30

Nizuri Tazuneri

Kodigo Norte

Revolutionary Brothers

Igandek jai

Ikuskizuna, jolasak eta txokolate jana

Familia giroa euskaraz

GEU elkarte

Uztailak 31, Aihotz plaza

_Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Erraustegiaren pribatizazioa

Gipuzkoako erraustegiaren erai-kuntza, kudeaketa eta mantentze lanak pribatuak izango direla agindu digu Foru Aldundiak. Horrela, publikoa izanda, sortuko duen defizita eta ondoriozko zorra kontu publikoetatik at geratuko dira, eta beraz, ez dira Europako Batzordearen kontrolpean egongo.

Enpresa publikoak pribatizatzeko politika orokorra 1980ko hamarkadan hasi zen Britainia Handian. Gerora, munduko herrialde askotara hedatu da, baita gure herrira ere. Ezin ditugu ahaztu Telefónica edo Campsaren pribatizazioak; Espainiako Estatuak bere lagun edo hurbilekoei saldu zizkien prezio erakargarrian. Bat-batean, jabetza publikoa, hiritarren izerdiarekin urteetan metatutako ondarea, esku pribatuetara igaro zen. Orain, enpresa horien akziodun-kudeatzaileek izugarritzko aberastasuna eta botere politikoa eskura dituzte.

Pribatizazioarekin estatuaren monopolioak merkaturatu ziren eta azpimarragarria da oinarritzko sektoreetan kokatuta zeudela: ura, telefonia, trenbideak, elektrizitatea, gasa, tabakoa eta abar. Pribatizazio horien xede nagusia sektore horietako zerbitzua enpresa askoren artean hornitzea zen, beraien arteko lehia handitu, eta ondorioz, prezioak apaltze bidean jarriko omen ziren; gainera, Estatuak ipinita zeukan arautze gogorra arintzeko neurriak ere hartu ziren, negozioa pertsonen aurretik ipiniz.

Telefoniaren kasuan ez da ahaztu behar, teknologia izugarri aurreratu duela eta lehia ahalbidetu. Orain, enpresa ugari operatzen dute eta tarifikak behera egiten. Bien bitartean, ez da horrela gertatu beste sektore gehienetan. Proposatutako erraustegiaren pribatizazioa trenbideen pribatizazioarekin aldera dezakegu. Izan ere, garraio sek-



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Erraustegia pribatizatzen bada, jarduera berresteko inbertsioak arriskuan egongo dira, are gehiago ustiatze epe muga hurbildu ahala (2030). Orduan, isurtze gasak eta hondakinen eragin negatiboak kontrolatzea erabat zailduko da, inguruko hiritarren osasunaren kalterako

tore hori Europako Kontseiluak aginduta, herritarren borondatea erabat saihestuta, datorren hamarkadan pribatizatuta egon behar du. Zerbitzu hori eskaintzeko trenbide enpresa ohia bi atal nagusitan banatuko da: azpiegitura (karrilak, geltokia...) eta trenak (maki-

na, bagoiak...). Normalean azpiegitura enpresa batek bereganatzen du eta tren zerbitzuak eskaintzeko enpresa ugari egon daitezke.

Trenbideen kasuan merkantziak errepideetatik atera nahi dira, baina apenas handituko den garraio kopurua, errepidekoa erosoagoa baita eta nahi den lekura eraman daitezke merkantziak, trenez ez bezala. Bestalde, garraio prezioak apalduko omen dira, baina orain artekoak igo besterik ez dira egin.

Trenbide, ura edo beste zenbait zerbitzuren pribatizazioaren kasuetan azaltzen den arazorik handiena azpiegituretako inbertsio berrietan datza. Izan ere, publiko zenean estatuak egiten zituen inbertsioak, mozkinak kontuan hartu gabe. Baina enpresa pribatu batek etekinik ez badu aurreikusten, ez du inbertituko, akziodun-zuzendariei ez zaielako interesatuko. Ondorio nagusia istripuak areagotzea izan da, hobekuntzak burutu ez direlako.

Erraustegia pribatizatzen bada, jardura berresteko inbertsioak arriskuan egongo dira, are gehiago ustiatze epe muga hurbildu ahala (2030). Orduan, isurtze gasak eta hondakinen eragin negatiboak kontrolatzea erabat zailduko da, inguruko hiritarren osasunaren kalterako.

Gure agintariek, futbol zelai ireki, frontoi, taberna, denda eta edozein bilgunetan galarazi digute erretzea, kearen bidez minbiziak jotzeko arriskua handitzen delako. Bien bitartean, Zubietan, inguruan milaka pertsonak arnasten duten tokian, gau eta egun milioika zigarrok sortuko luketen ke gunea jarri nahi digute. Gainera, metal astun pozoitsuek sortutako ke beldurgarria jaulkiko da tximiniatik.

Munduan ez dago medikurik horrelako proiektu arriskutsua onetsiko duenik, diruaren truke ez bada. Erne guztiok! ■

Salba dezagun ETB

Zein eskasak garen gure herrian kritikak onartzeko tenorean, eta “auto” aurritzia ipiniz gero, are eskasagoak oraindik. Ezker edo eskuin begiratuta ere, berdin dio. Indian bezala, badira ukiezinak direnak gurean. Eta nonbait, ETB da horietako bat.

Orain dela egun gutxi Bilboko EITB-ko egoitza erraldoi hutsalean bilduta nengoen. Niretzat gordeko dut norekin. Hona, *Berria* egunkariak berriki argitaratutako audientzien gainerako artikulua baten harira entzun behar izan nuena: “Egia esan, periodiko hori itxiko balute ere, niri berdin”. Edo antzeko zerbait.

Latza da gero, *Egunkariarekin* gertatutakoa bizi ondoren, horrelako perlak entzun behar izatea. Eta hori aurpegira esanda. Auskalo koadrilan nolakoak botako dituzten. Gogoa sartu zitzaidan esateko, niri ere berdin litzaidakeela ETB ere itxiko balute. Horren ordez, ARGIArako artikulua idatzi behar nuela esan nion. Zeren eta oraindik ere ETB gurea, denona, behar lukeen zerbait bezala sentitzen dut. Baina, esadazue, ETB itxiko balute, benetan, zenbat lagun joango lirateke ixtearen kontrako *manifara*, antolatuko balitz?

Gure solaskidea hizketarako gogoz zegoen eta datu esanguratsu bat bota zuen, besteak beste. ETBren aurrekon-



Eneko Olasagasti

ZINEMAGILEA
@enekolasagasti

Edozein enpresak zenbaki horiekin itxi egin beharko luke. Iruditzen zait ez garela guztiz kontziente gure diruarekin mantentzen den enpresa dela. Eta, baldin bagara, berdin zaigula

tuaren %78 egituraren mantenurako bideratzen dela, eta gainerakoa, %22, ekoizpenerako. Ni letratakoea naiz eta zenbakiak ez dira nire arlokoak, baina

zerbaitekin esaten dit portzentaje horietan desoreka izugarria dagoela. Edozein enpresak zenbaki horiekin itxi egin beharko luke. Iruditzen zait ez garela guztiz kontziente gure diruarekin mantentzen den enpresa dela. Eta, baldin bagara, berdin zaigula.

Gaur goizean, gidoilari eta ekoizle batekin lanaz hitz egiteko bilduta, ezinbesteko gaia atera da: ETB. Bieta-ko batek, ez dut esango nork, bota du: “Zertarako behar ditu ETBk 1000 langile (inguru)? Erdiek edo, kalera joan beharko lukete”. Edo antzeko zerbait. Aspaldian, talde txikitik, entzundako lelo bera. Eta segidan gehitu du: “Baina hori esanez gero, neoliberal nazkagariak garela esango lukete”.

Gure solaskideak, ETBkoak, gauza bera pentsatzen du, Euskal Herrian beste askok bezala, baina berak sindikatuak ditu aitzakia ezertxo ere ez egiteko.

Uste dut badela garaia dugun telebista ereduaz ezbaiant jartzeko. Sortu zenetik hogeita hamar urte luze pasa dira, eta agian “komeni” da birpentsatzea egindakoa eta egiten dena ongi dagoen eta berdin segitzeko asmotan garen. Alegia, kritiko izan behar dugula, egoitza erraldoietako bulegoetako ateak betiko itxi arren. ■

Ikerketa Institutuak

EZAGUTZA SORTUZ
www.unavarra.es



- Sentsoreak
- Big Data
- IKT



- Osasuna
- Energia
- Ingurumena



- Berrikuntza
- Analisia
- Estrategia



- Elikagai segurak
- Osasungarriak
- Jasangarriak

ISC
Institute of Smart Cities
isc@unavarra.es
+34 948 169288 / 169331

InaMat
Institute for Advanced Materials
inamat@unavarra.es
+34 948 168448

Inarbe
Institute for Advanced Research in Business and Economics
inarbe@unavarra.es
+34 948 169684

IS-FOOD
Research Institute on Innovation & Sustainable Development in Food Chain
isfood@unavarra.es
+34 948 169136

Erandiotik Zubietara



Iñaki Barcena
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Erudio. Euskal ekologismoaren historian nire jaiolekuak toki berezia du. Pilar Ca-reagak, frankismoak izendatutako Bilboko alkatea, oihu eta protesta gogorrek entzun behar zituen *Metalquímica* enpresak eragindako gas isurtzeen kontra. 60ko hamarkadaren garai itogarri hartan *Gasa kanpora!* zen lelo nagusia Bilboko auzoan. Bilbok irentsitako herria baitzen. Espainiako poliziak Josu Murueta eta Anton Fernandez berunezko balekin erail zituen gasaren aurkako mobilizazio batean. Bataio ekologista odoltsua izan zen orduko hura gero.

30 urte geroago, Erudio aukeratu zuten Zabalgardi ezartzeko, Bizkaiko errauskailuaren proiektua; Sakoniko ibarran, industria gune kutsatu batean. Orduko EAJko alkatea ados zegoen, lanpostuak behar zirela eta, Euskal Herriko langabetuen tasa altuen zeukan udalerrria baitzen. Aldiz, erandiotarren memorian gasaren urteek bizirik zirauten eta ezetz borobila eman zioten Zabalgardi. Azkenean, Bizkaiko Aldundiak deitutako nazioarteko aditu talde batek leku aproposagoa aukeratu zuen: Bilboko Artigas zabortegiaren ondoan, Alonsotegi udalerrian gain-gaanean. Hor hamar urte bete berri ditu, istorio toxiko askorekin.

Zubietara: Ez da leku toxikoa... Oraindik ez behintzat. Kontrakoa. Bertara bizitzera joan be-

rra da asko maite dudana pertsona bat, eta nago Gipuzkoako paraje ederrenetarikoa bat aukeratu duela. Lasarte-Oria eta Usurbilgo hiriguneen arteko auzune hau, pasealeku eta gozameneko zonalde berdea baino ez da momentuz, Oria ibaiaren ibarrean. Baina berak badaki Andatza mendiaren magalean, zulo arriskutsu bat eginda dagoela. Eta bertan, erdi ezkutaturik Gipuzkoako erraustegia ezarri nahi dutela.

Nortzuk eta nola erabaki dute Zubietara dela gune toxikoa izateko leku egokia? Odon Elorzarri galdetu. Donostiako alkatea izanik, Gipuzkoako Zergarbi proiekturako (Bizkaikoa Zabalgardi da, bitxia ezta?) leku bat bilatu behar zen eta Gipuzkoako herri askotatik pasa eta gero, Donostiako muturrean dauden lursail horietan jartzea erabaki zuten. Bizkaiko kasuan bezala, mendian gora, lekutan. Baina bertara egunero kamioi pila joan beharko dute, orain Meruelo- (Cantabria) joaten direnak. Zergatik ez doaz Bilboko erraustegira? Garestiagoko ote? Iosu Madariagari galdetu beharko diogu. Joan den hilabetearen Ingurumen Inpaktu Txosten faboragarria sinatu baitu Eusko Jaurlaritzaren ardura den aldetik. Duela urte gutxi, *El Correon*, Zabalgardi arduraduna zenean, Euskadiko Autonomia Erkidegoan erraustegi batekin nahikoa zela zioen.

Zergatik orain, beste bat Zubietara? ■

Opaku



Itxaro Borda
IDAZLEA

Opakutasun amets bezala galtzen gara, euskalduntasuna, haize parpailaren antzera altxatzeko jaidura dugun jendarte honetan: etxeko ikurrinak, pinak, hiru koloreko pegatinak ateratzen ditugu iragarriak diren gertakari edo manifestaldiren kariatara. Eta harro gaude, arrazoiez. Zuri-gorri-berdea ongi dagokigula ezin uka, bereziki kirolaz ari garenean.

Baina uste dut, Martinikako Eduard Glissant poetaren ildotik, batzuetan on dela nortasuna eta erroak baztertzea munduko beste edozein bizidunen anonimotasun eta arrotz izaeraz gozatze-ko. Orduan ez gara gehiago arazo, ez gara erroen

eta hizkuntzaren arduradun, ez gara erakargarri agertzera behartuak, ez gara igurikatzen gaituzten tokian aurkitzen. Auto-kontrolaren itzal zorrotzetik alde egin dezakegu eta azken finaren finean gorrotatzeko nehor ez daukagu.

Batzuetan euskaldun izatea akigarria da guretzat, eta gurutzatzen gaituztenentzat. Mendeetan jasan (ez jasanarazi) dugun sufrimena jorratzen gabiltza beti, arinagoak, ahanzkorragoak eta axolagabeagoak izateko partez.

Nortasuna, alabaina, gauza serioa baino gehiago da, sakonenean azalekoena hain zuzen ere.

Eta alderantziz. ■

Kirol barneratzailea

AURRERANTZ, BAINA ESKU-HARTZE ZABALAGOA ALDARRI

Gasteizko Gaztedi taldeak saria jaso du Munduko Errugbi Inklusiboko 1. Txapelketan. Arabarren esperientzia abiapuntu hartuta, bereziki adimen urritasuna duten pertsonak gizartera integratzeko kirolak bete dezakeen funtzioaz eta bide horretan dauden oztopo eta abaguneez hitz egin dugu Mikel Epalza errugbilariarekin, autismoa duen Enekoren ama Aintzane Muguruzarekin eta Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioko kide Jurgi Olasagastirekin.



Jon Torner Zabala
@jtorner

Gasteizko klubean argi dute. Inklusioa ez da aparteko beharrak dituzten pertsonak, izan down sindromedunak izan autistak, talde berezietan bildu eta elkarren aurka partidak jokatzea. Proiektu batek izan nahi badu erabat barneratzailea, barnean hartu behar ditu klubeko estamentu guztiak: kirolariak, entrenatzaileak, zuzendaritzakoak... Halaxe ari dira Gaztedin. Behar bereziak dituzten kideek gainerako jokalariekin batera entrenatu ohi dute larunbatero, eta han ikasitakoa *benetako* partidetan erakutsi dezakete tartean behin, errugbilari denak, urritasuna izan ala ez, talde berean nahastuta. Iaz, adibidez, altxor ederrarekin itzuli ziren Ingalaterratik.

Frantzia, Eskozia, Irlanda, Gales, Italia, Serbia eta Argentinako taldeek parte hartu zuten, Gaztedirekin batera, Bradford hirian jokatutako Munduko Errugbi Inklusiboko 1. Txapelketan. Bi sari banatu zituzten: onena izateagatik Sunday's Well Rebels irlandarrak lortu zuena batetik, eta inklusio lan eredu-

garriagatik Gaztedik jasotakoa bestetik, *Spirit of Mixed Ability Rugby Trophy* garairurra.

“Munduko Kopa irabaztea zoragarria izan da guztiontzat, zer esanik ez Down Araba elkarteko kide diren eta gure taldean jokatzen duten pertsonentzat”, esan digu Escor-Gaztediren talde federatuan ari den Mikel Epalzak. “Bat-batean erreferente bilakatu gara. Erantzukizun polita izanik ere ahalegin handiagoa eskatuko digu, jende gehiagorengan eragin beharko dugu proiektua hazten joan dadin”.

Erreferente bila ari da, hain justu, Aintzane Muguruza donostiarrak, Eneko 10 urteko ume autistaren ama. Kontatu digu semeari “izugarri” gustatzen zaiola lagunekin futbolekin aritzea, eta irratian entzun zuenean Levante taldeak bazuela egitasmo integratzaile bat, Realari Twitter bidez mezua bidali ziola pasaden martxoan, galdetuz ea horrelakorik baduen edo antolatzeke asmorik duen. Erantzunik ez zuen jaso –euskal





Gaztediren talde barneratzaileak eta gisakoek nahi baino aukera gutxiago dute beste klub misto batzuen aurka lehiatzeko –Espainiako Estatuan hiru talde besterik ez daude–, baina jokalarien grina ez du apaltzen horrek.

BETO CARRILLO / GAZTEDI ERRUGBI TALDEA

» **MIKEL EPALZA:**

“Errugbi taldeetan pertsonarik arraroenak biltzen gara, eta erabat integratuta sentitzen gara halere. Down sindromedun eta autistekin batera entrenatu eta jokatzearrats bat gehiago izan da”

» **AINTZANE MUGURUZA:**

“Behar bereziak dituzten pertsonak gizartera irekitzea da helburua, eta hori lortzeko beharrezkoa da denak nahastea, ezgaitasunak dituztenak benetan barneratuak senti daitezen eta gainontzekoek aukera izan dezaten errealitate hori gertutik ezagutzeko”

» **JURGI OLASAGASTI:**

“Zergatik uzten diote gazteek kirola praktikatzeari? Ez zaielako kirola egitea gustatzen? Ala indarrean den eredu konpetitiboa da gustuko ez dutena? Agian, gehiago joko bagenu jolas parte-hartzaileen bidetik...”

KIROLEAN ARITZEKO HAMAICA AUKERA

Gaztedi errugbi taldeak iaz lortutako balentria akuilu, Gasteizek jasoko du datoren urtean Munduko Errugbi Inklusiboko Txapelketa. Hamabost bat talde bilduko dira bertan eta, nork daki, agian izango da beste klub euskaldunik ere, integrazioaren bidean pauso politak ematen ari den Hernani adibidez, edo Bilboko Unibersitario XV. Eneko ume autistak Hernaniren proiektua ezagutzeko abagunea izan zuen igande batez, eta Federazioaren barruko multikirol egokituaren ere aritu da. Bien bitartean, harremanak sendotzen jarraitzen du haren ama Aintzanek. Esan digu Realari txioa bidali zionetik hainbat gurasok hots egin diotela jada, eta ekimen integratzaile gehiagoren berri heldu zaiola, mistoak eta ez. Familiei dei egin die ahalik eta ate gehien jotzeko, izan Down Araba, Gautena, Nafarroako ANA edo Bizkaiko Gorabide elkarteena, izan kirol

egokituko federazioena eta haien parte diren taldeena, helburu izanik seme-alabek bizi duten errealitatea azaleratu eta gizarteratzeko aukerak esploratzea. Kirol mundura hurbiltzeko hamaika era daude gainera. Esaterako, aurren, adimen urritasuna duten pertsonak laguntzea xede duen Beasaingo Txolarte elkarteak ki-deek, Ehunmilak mendi lasterketaren antolakuntzan lagunduko dute, uztailearen 8tik 10era bitartean. Aipatu genitzake ere bai, dozena erdi adibide gehiago jartzearen, Kirol Egokituaren Euskal Federazioa 2013an antolatzen hasi zen areto futbol-leko euskal liga, kirol eta kultur jarduerak uztartzen dituen Angeluko Autrem'handi elkartearen jaialdia, ANA padel txapelketak, aulki gurgilduneko saskibaloia eta pilota egokitua, ezgaitasuna duen kirolaria ingurune naturalean integratzeko urrats handiak eman dituen kirola.

futbol talde profesionalek ez dute kirol integratuko egitasmorik-, baina temata jarraitzen du, jakitun kirola inklusio-tresna eraginkorra izan daitekeela. “Futboleko ikaragarri disfrutatzen du semeak, baina zailtasunek atzera botatzen dute; frustrazioa modu bortitzean azaleratzen du orduan, edo be-rean gotortzen da. Horregatik geratzen dira bera bezalako hainbeste pertsona etxean sartuta. Nire asmoa da halakorik ez gertatzea”. Azaldu digu kezka bera duen adiskide batek Gipuzkoako Futbol Federaziora idatzia bidali zuela, eta erantzun ziotela Diputazioaren bitartez bideratu beharreko kontuak direla horiek. “Nire nahia, ordea, ez da gizarte zerbitzuetara jotzea”, dio Muguruzak. “Gautena autismo elkarteak eta halakoak sekulako lana egiten ari dira, baina urrats bat harago joan nahi dut. Behar bereziak dituzten pertsonak gizartera irekitzea da helburua, eta hori lortzeko beharrezkoa da denak nahastea, ezgaitasunak dituztenak benetan barneratuak senti daitezen eta gainontzekoek aukera izan dezaten errealitate hori gertutik ezagutzeko”. Inklusioa ulertzeko moduan bat datoz Epalza eta Muguruza.

“Integrazioak denoi egiten digu mesede”, esan digu Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioko teknikari Jurgi Olasagastik. “Urritasun bat dutenentzat kirola

praktikatzea positiboa da, onura fisiko, psikologiko eta sozialak dakartzen heinean; besteontzat, maiz aldamenen ditugunak ere gizartearen parte direla konturatzen ez garenontzat, harremanak estutzeak laguntzen digu bizitza beste modu batera ikusten, norberaren lehentasun eta arazoak erlatibizatzen”.

Errugbian lor badaiteke...

Gaztedi egindako ibilbidearen harira, Epalzak azaldu digu barneratze printzipioek hasiera-hasieratik markatu dutela klubaren norabidea, kirol horrek, amateur mailan bereziki, berezkoak dituen baloreak ardatz: “Errugbi taldeetan pertsonarik arraroenak biltzen gara, eta erabat integratuta sentitzen gara halere. Down sindromedun eta autistekin batera entrenatu eta jokatzearrats bat gehiago izan da. Gaztedin topo egin dute abertzaleek eta militarrek, ezkerreko jendeak eta eskuinekoak, beltz, marokoar eta zuriek, guardia zibilek eta haien semeek... eta ez da sekula arazorik izan. Errespetua oinarritzeko balorea da klubaren estamentu guztietan, zelai barruan bederen”.

Talde barneratzaileak indarberrituta ekin zion 2012ari, Escor-Gaztediko jokalariei eta Down Araba-Isabel Orbe elkarteak hezitzaile David Izquierdoren eskutik, denbora gutxian munduko txa-

peldun izatera heltzeraino. “Gure helmuga ez da hori”, dio Epalzak. “Lanean jarraituko dugu, erakusteko inklusioa errugbian lor badaiteke beste esparruetan ere posible dela, izan kalean, tabernetan edo beste edozein lekutan. Gizarteratzea funtsezkoa da”.

“Eneko bezalako gazteak aisialdi talde itxietan mantentzen badituzu, proiektu txalogarriak izanik ere, jendartearekin elkarrekintzan jarduteko aukera galduko dute”, azaldu digu Muguruzak. Semeari izugarri gustatzen zaio lagunekin futbolekin aritzea, baita haiei Enekoekin jolastea ere. Gertatzen dena da eurek eskolaz kanpoko taldeetan izena eman dezaketela, baina Enekok ez. “Erakutsi nahi dut badagoela ume hauek gizarteratzea, zailtasunak zailtasun. Hori da justizia, bakoitzari behar dituenak ematea”.

Lehia vs partaidetza

Ildo berean mintzo da Olasagasti: “Pertsona orok izan behar du inklusiorako aukera. Beste kontu bat da, kirola nola antolatua dagoen ikusita, aurrera nahi beste egiterik badagoen ala ez, gaur egun lehia baitu orokorrean ardatz, parte-hartzea baino gehiago. Klub edota elkarteek kontuan izan behar dute badagoela konpetitibo hutsa ez den beste biderik”. Gipuzkoako Federazioko teknikariak, halaber, argi du inklusibotasuna “oso polita” dela baldin eta tartean diren norbanako guztiak nahikoa kontzientziaturik badaude, ingurunea bortitza baita batzuetan. “Badakigu futbolekin jokatzen duen edonork zer nolako astakeriak entzun behar izaten dituen; bada, pentsa zer jasan lezaketen urritasunak dituzten gazteek...”.

Hezitzaile eta entrenatzaileak behar bereziak dituzten pertsonak zuzen ardatzeko prest ote dauden galdetuta, oro har ezetz erantzun digu Muguruzak, atzera berriz ere lehiaren auziari helduta: “Normala da, ez baduzu prestakuntzarik jaso eta Eneko bezalakoekin sekula lan egin... Gainera, helburua ahalik eta lehiakorrena izatea baldin bada nekez egingo dugu aurrera. Hain justu, Gipuzkoako Futbol Federazioak erantzun digu helburua txapelketak direla eta hortik kanpo dagoen beste edozer Diputazioaren gizarte ekintzen ildotik bideratu behar dugula. Kontua ez da hori”. Bera kontziente da hasieran zaila gerta daitekeela, semeak mugak



Gurpildun aulkiko pala eta saskibaloi modalitateak erreferentzia dira aniztasun funtzionala duten pertsonen integrazioari dagokionez.

GKEF

dauzkalako bere sentimenduak adierazteko eta gauza berrien aurrean ezkor jokatzen duelako maiz. Badira pautak, ordea, zuzen landuz gero ahalbidetzen dutenak denontzat onuragarriak diren gauzak lortzea. Muguruza ziur da luzera begira abantailak denontzat liratekeela. Irribarrea ezpainetan, kontatu digu Enekok futbolaren arauak ezagutzen dituela baina, zenbaitetan, irabazten ari denean, aurkariak berdinketa lortzea nahi eta agian gola sartuko duela bere atean. Edo erabakiko duela inori ezer esan gabe beste taldera pasatzea, edo partida bere gustukoa ez delako ospa gitea...”.

Heziketan tematzea gako

Kirol Egokituko Federazioko Jurgi Olasagastik eragile ugari egiten ari den ahalegina goraipatu du, baina berak ere ez du uste oro har entrenatzaileak-eta prest daudenik, egiaz ez gaudelako prest kirola beste modu batean ulertzeko. Kirol kolektiboetan bereziki, helburua irabaztea izanik, jokalariek baten jardunak talde osoari eragiten dion heinean, urritasuna duen jokalariek estrategiak barneratzen ez baditu edo defentsan kamuts aritzen bada, oztopo bilakatuko da.

“Prest al gaude hain trebeak ez diren umeak gure gain hartzeko?”, galdera airean Olasagastik. “Gauza bat argi utzi nahi dut, dena den: nik ez diot tx-



DANI BLANCO

Goian, Aintzane Muguruza eta haren semea, Eneko, autismoa duen 10 urteko mutila. Behean, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioko teknikari Jurgi Olasagasti.



BETO CARRILLO / GAZTEDEI ERRUGBI TALDEA

pelketari duen garrantzia kendu nahi”, diosku. Lehia eta partaidetzaren arteko oreka lortzea, horratx gakoetako bat, ez soilik adimen urritasuna duten kirolarien integrazioari dagokionez, zentzu zabalagoan baizik, nagusi den ereduak bere neurrirako egitura finkatu duen heinean, egokitzen ez direnak bazterrean utzita sarri.

Parte-hartzearen bidea sendotze aldera, Olasagastik dio “heziketana” ahalegin handiagoa egin beharko litzatekeela, ezinbestekoa dela kirol ibilbidea eskolatik bertatik hasita berregituratu eta klubekiko harremanak sendotzea, besteren artean. “Zergatik uzten diote gazteek kirola praktikatzeari? Ez zaielako kirola egitea gustatzen? Ala indarrean den eredu da gustuko ez dutena? Agian, gehiago joko bagenu jolas parte-hartzaileen bidetik... Jarduera fisikoak berezkoak dituen onuren gainean arreta handiagoa jartzeak mesede egingo liguke aurrera begira”.

Zentzu horretan, parentesi moduan-edo, gauza bera komentatu ohi dute emakume kirolarien errealtateaz aztergai duten adituek, alegia, federazioaren ereduak ez zaiela ongi egokitzen eta partaidetza zabalagoa bermatzen duen kirolaren ildotik egin dutela bidea neska ugari. “Gaztetan, askotan entzuten dugu neskek ez dutela gogoko kirola egitea. Gertatzen dena da, agian, gustuko ez dutena egitura konkretu batzuetan dagoen estiloa dela, edota jasotzen duten tratua”, esan zigun berdintasun gaietan aditu eta 2012ra arte eskubaloio jokalariek federatua izan zen Ainhoa Azurmendik, ARGIAren 2571. zenbakian egin genion elkarrizketan.

“Dirua ezin da aitzakia izan”, jarraitu du Muguruzak. “Pertsona hauek, autonomia geroz eta handiagoa izan, gauza gehiago egingo dituzte euren kabuz, uneoro norbaiten zaintzapean egon beharrik izan gabe, gastuak murriztea ahalbidetuz. Eta kirola oso tresna ona da autonomia garatzeko. Hori bai, kostua epe luzera gutxituko da, hasieran inbertsioak egin behar dira”.

Guraso eta elkarleen esku-hartzea, funtsezkoa

Lehen urratsak emateko unean Down Araba eta halako elkarleen lana ezinbestekoa da, baita gurasoen esku-hartzea ere, Gaztedi taldeko Mikel Epalzak esan digun moduan. Haien esperientzia jarri digu adibide: “Apur bat beldurturik agertu ohi dira hasieran, pentsatzen baitute errugbia arriskutsua dela, baina ikusten dutenean gazteek izugarri ondo pasatzen dutela eta gainera ez dela uste bezain kirol bortitza, pozik egiten dute bat proiektuarekin. Sarri entzun dute seme-alabek ezin dutela hau ala beste egin, eta errugbian nola aritzen diren ikustea gauza ederra da”.

Olasagastiren iritziz garrantzitsua da kirol egokitua ezagutzera ematea, ekimenak antolatu eta erreferenteak sortzea, interesa areagotu eta lagun gehiago erakarriko lukeelakoan. Federazioan 400 bat lizentzia dituzte –guztiak ez dira kirolariak–. “Kopuru txikia da, estatistikek baitiote herriararen %8k duela urritasuna; haietako asko ez dira konturatzen zenbat gauza egiteko kapaz izango liratekeen”. Zentzu horretan, hedabideok zer egin badugula esan digu, Richard Oribe igerilariak gain badaudelako kirolari gehiago, merzei dutenak haien lorpenak ezagutzera ematea. Eta ikusgarritasuna hizpide, mailaketa egin du: “Gizonezko atletak daude, emakumezkoak gero, urritasuna duten gizonezkoak eta, amaieran, urritasuna duten emakumezkoak. Pentsa zein den azken horiek bizi duten errealtatea”.

“Duela lau urte hasi ginen gu, eta munduko txapeldun gara jada”, bukatu du Gaztedi errugbi taldeko Mikel Epalzak: “Ez dut harroputza izan nahi, baina orain gu gara erreferente, eta ez dauka gu ideia putarik ere. Ziur egunero erratuko garela, larunbatetako entrenamendu guztietan, baina bagoaz aurrerantz. Bidea ekinez egiten da”.

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA ZERRA ETA ERAIKUNTZA



25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com



EUSKAL HERRIKO
LABORANTZA GANBARA

64220 Ainiza Monjolose
tel.: 05 59 37 18 82
www.ehlgbai.org

ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

BERRIArekin, uda gozagarri

Sari apartak ditugu:



Astore etxearen
euskal selekzioaren
bost elastiko



Akelarre jatetxean
**bi lagunentzako
otordua**

*Astelehenetik ostiralera



Zuberoa jatetxean
**bi lagunentzako
otordua**



Hiru hilabeteko
**bost BERRIALagun
harpidetza**

Parte hartu zozketan

uztailaren 5a
baino lehen!

> berria.eus/zozketa

Astebeteko bidaia Lanzarotera bi lagunentzat

*Hegaldia Bilbotik eta behe denboraldian



berria
mundua•euskarari•emana

Iñaki Goirizelaia (EHU) eta Alfonso Carlosena (NUP)

“UNIBERTSITATE PUBLIKOAN GIZARTEARI ERANTZUN BEHAR DIOGU, EZ MERKATUARI”

Karreraren berrantolaketa, unibertsitatearen hizkuntza politika, ikasleekin izandako liskarrak, enpresa pribatuen esku-hartzea finantzazioan... Gai ugari jarri dizkiegu mahai gainean Euskal Herriko Unibertsitateko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreei, Iñaki Goirizelaia eta Alfonso Carlosenari.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zentroen berrantolaketa egingo du EHUk: 31 zentrotik 20 izatera igaroko da datorren ikasturtean. Langile kopuruan ez duela eragingo adierazi izan duzu, baina kontra agertu dira hainbat zentro, autonomia galtzearen beldur dira.

Iñaki Goirizelaia: Halako prozesu baten aurrean, beti daude aldeko jarrerak eta jarrera kritikoak, baina prozesuan zehar berrantolaketa honen helburuak eta abantailak komunikatzen egin dugun ahaleginari esker, bozketak aldekoak izan dira nabarmen. Egia da hiru zentro izatetik bakarrera igarotzen zarenean, horietako batek pentsa dezakeela autonomia galduko duela, baina kontua da, ezer egin ezean, zentro horren biziraupena zalantzan zegoela. Beraz, galdera litzateke: hau egingo ez bagenu, zer gertatuko litzateke? Helburua ez da zentroen autonomiaren aurka joatea, unibertsitate hau erreferentzia izatea baizik, eta horrek eskatzen du denok elkarrekin eta ondo koordinatuta lan egitea. Ikerketa arloan gero eta aktiboagoak izan nahi badugu, ezin dugu bakoitza bere aldetik aritu, ahaleginak batu behar ditugu. Eta jendeak ulertzen du etorkizuna izan nahi badugu hobe dela zentro indartsu eta erreferentzialak izatea.

Baina 6.000 ikasletik gorako makro-zentroek eraginik izan dezakete hezkuntza-ren kalitatean?

I. Goirizelaia: Inola ere. Irakaskuntza-ren antolakuntzak ez du zerikusirik zentroaren tamainarekin; graduak eta gradu horien irakaskuntza orain arte bezalakoa izango da, eta kalitatea berdina, edo are hobea, esango nuke, irakasleek baldintza hobeetan garatu ahal izango dutelako jardun akademikoa.

Berregituraketa honek ba al du zerikusirik graduen balizko berrantolaketa batekin? Alegia, egun EHU duzuen 4+1 sistematik (4 urteko graduak, urtebeteko graduondoa) joera bihurtzen ari den 3+2 sistemara igarotzearekin?

I. Goirizelaia: Ez, inondik ere. Gaur egun dugun ikasketa egitura mantentzearen alde gaude.

Eta NUPen, mahai gainean al dago 4+1 sistematik 3+2ra igarotzea eta ondorioz graduondokoei pisu handiago ematea?

Alfonso Carlosena: Nik uste laster 3 urteko graduak planteatuko direla eta bi sistemak batera izango ditugun eredu batean murgilduko garela, 3 eta 4 urteko graduak. Ezin dena da batean eta bestean gauza bera eskaini: 4ko graduak abantaila dute adibidez praktiken epealdia luzatzeko edo beste kompetentzia batzuetan sakontzeko. Bata eta bestea kontrajarri orde, masterrak hobetzen egin behar dugu lan, beste he-

rrialde batzuekin konparatuta masterratan baitugu erronka.

Masterrei eta graduondokoei pisu handiago emateak ekar dezake graduak balioa galtzea eta hezkuntza elitistagoa bultzatzea?

A. Carlosena: 3ko eta 4ko graduatan eskaintzen ari garena argi dugun bitartean, ez dago zertan arazorik izan. Gradu batzuk egokitzen dira 3 urtera eta beste batzuk 4ra. Eta kasu askotan graduak nahikoa dira, baina ikasketak masterrarekin osatu nahi dituenarentzat gradu-master uztarketa ongi egin beharko da, eta jakina, saiatu behar gara masterra ez dadin izan gradua baino garestiagoa, faktore kritikoa hori baita. Ibilbide guztia egin nahi duenarentzat ez dadila garestiagoa izan.

I. Goirizelaia: Unibertsitatean egiten diren apustuek ezin dute inoiz ikaslearen poltsikoaren aurka joan. Ikasketak formatu batean edo bestean egin, ez dadila garestiagoa izan ikaslearentzat. Bestalde, graduak urtebete gutxiago duelako prestigioa galdu ote dezakeen? Duela gutxi 3 urteko graduak ziren Ingeniari-tza tekniko, Erizaintza, Magisteritza... eta inork ez zuen profesional horien prestigioa zalantzan jartzen. Edukiak, eskaintza akademikoa, baliabideak dira prestigioa ematen dutenak, baina berriz diot, gaur gaurkoz ez dugu interesgarri ikusten 4tik 3ra igarotzea, ditugun titulazioetarako.



Egun, errektoreak erabakitzeko ahalmen eskasa duela uste dute Iñaki Goirizelaia (ezkerrean) eta Alfonso Carlosenak.

Hain zuzen ere, titulazioen eskaintza berregin duzue. Zein irizpide jarraitu duzue gradu batzuk kendu eta beste batzuk ezartzeko? Humanitateen edo Gizarte Zientzien aldean, karrera tekniko-zientifikoak hobetsi al dira, hainbatetan ikusi dugun joerari jarraiki?

I. Goirizelaia: Unibertsitate publikoa garen heinean, argi dugu eskaintzen ditugun titulazioak ez direla egongo inguru sozio-ekonomiko jakinetatik duten eskaeraren menpe. Onartezina litzateke herri batek filosoforik ez izatea, eta hortaz, unibertsitate publikoak filosofoak formatu behar ditu. Errentagarritasuna eta merkatuaren beharrak ez dira irizpide guretzat, herriak dituen beharrak baizik. Hain juxtu, nagusiki ingeniari-tza arloko graduak kendu ditugu, eskaintza hori berrantolatzeke helburuz.

A. Carlosena: Gurean ere berdin, unibertsitate publiko bezala gizarte-ari erantzun behar diogu, ez merkatuari. Batzuetan presio handia dugu unibertsitateok, enplegutasunaren izenean badirudielako ikasleak formatu behar ditugula soilik enplegu jakinetarako, eta guk askoz modu zabalagoan ulertzen dugu, herritarrek

formatu nahi ditugu. Egia da NUPen ingeniari-tzak pisu handia duela eta horregatik, titulazio berriak pentsatzen ari garen honetan, argi dugu Gizarte Zientziak ezin ditugula bazterrean utzi eta adibidez Arte eta Humanitateetan ere zerbait eskaini behar dugula, egun ez dugulako arlo horretan ezer eskaintzen. Erakargarria izan beharko du, gutxien-gutxieneko eskaera ez duenak ez baitu zentzurik.

NUPen, ikasgaien %20 baino ez da eskaintzen euskaraz eta karrera bakarra egin daiteke guztiz hizkuntza horretan: Magister-tza. Zein portzentajetan hobetu nahiko zenukete euskarazko eskaintza? Ikasleen eskaeraren arabera egingo al da?

A. Carlosena: Eskaera erreala zein den ez dakigu eta bestalde, euskarazko eskaintza ez da erraza, irakasle askok ez baitakite euskaraz. Saiatzen gara, salbuespenak salbuespen, titulazio guztietan gutxienez euskarazko ibilbide bat eskaintzen, ikasleek ikasturte guztietan euskarazko ikasgai batzuk izan ditzaten. Gure helburua da kredituen %20 baino gehixeago euskaraz eskaini ahal izatea.

Diozun moduan, irakasle askok ez daki euskaraz NUPen, zehazki %75,43ak. Egungo irakasleekin neuririk hartuko da hori konpontzeko? Eta etorkizuneko kontratazioetan kontuan hartuko da euskaraz jakitea?

A. Carlosena: Kontua da kontratazioetan ezin dela euskarazko profila sartu eta beraz, aukera bakarra da euskaraz ikasi nahi duenari erraztasunak ematea. Baina borondatezko aukera litzateke.

EHUn ere bada zer hobetu euskararen gaian. Karrera guztia euskaraz ikasi ezin duten Medikuntzako ikasleen graduazio-ko diskurtsoak famatuak dira, dagoeneko.

I. Goirizelaia: 30 urtetan ez diogu utzi euskararen aldeko neurriak hartze-ari eta 200.000 ordu baino gehiago eskaintzen ditugu urtean euskaraz. Herri honetan ez dago inor euskararen normalizazioaren alde EHUK bezainbeste egin duenik. Eta alde handiarekin gainera. Euskarari lotuta unibertsitate honek egin duen politikaz oso harro nago. Medikuntzako graduak konnotazio bereziak ditu eta klinika-aurreko ikasgaiak %100 dira euskaraz, klinikan eman beharreko orduak dira arazoa.

» **ALFONSO CARLOSENA:**
 “Laster bi sistemak batera arituko dira, 3 eta 4 urteko graduak. Saiatu behar gara gradu osteko masterra ez dadin izan gradua baino garestiagoa; faktore kritikoa hori da”

» **IÑAKI GOIRIZELAIA:**
 “Euskararen arazoa EHU ez dago irakaskuntzari lotua; eguneroko hartu-emanak kezkatzen nau, gure profesionalenak, baina baita uneoro euren artean gaztelaniaz mintzo diren ikasleenak ere”

» **ALFONSO CARLOSENA:**
 “Protestetan, batzuetan taldeak daude, modu koiuntural eta interesatuan unibertsitateko ikasle taldeetara batzen direnak. Hainbatetan, gazteek unibertsitatean askatzen dute euren haserrea”

» **IÑAKI GOIRIZELAIA:**
 “Ez dugu enpresa ilararik ate joka, dirua jarri nahi dutela esanez. Nahiko nuke! Erabakimena unibertsitateak mantentzen duen bitartean, non dago arazoa?”



Bi unibertsitateen arteko harremanean urrats asko eman direla diote errektoreek, gehienetan behetik gora sortuak (ikerketan lantaldeak, irakasleen arteko lankidetzak...). EHUk 50.000 ikasle ditu eta NUPEk ia 8.200.

Hobetzeko gauzak daudela? Bai, badaude, baina aski da, goi mailako hezkuntzan, ikerketan, dibulgazioan, liburu ekoizpean... euskararen arloan gehien egin dugunak gara. Euskararen arazoa EHU ez da irakaskuntzari lotutako arazoa, eguneroko hartu-emanak gehiago kezkatzen nau, gure profesionalenak, baina baita ikasleenak ere: titulazioa euskaraz eskatzen duten berdinak uneoro gaztelaniaz mintzo direlako euren artean. Medikuntzatik egiten dizkiguten kritikak ontzat hartzen ditut, baina beti esaten diet atzera begiratu dezatela, norantz goazen ikus dezatela, eta gaur egun duguna baloratzeko gai izan daitezela.

Azken hiruhilekoa beroa izan da bi unibertsitateetan. NUPen, ikasleek salatu dute protesta baketsua egiten ari zirenean errektoreak Forzuaingoa deitu zuela eta liskarretan zauritu egin zituztela.

A. Carlosena: Protestak ez ziren bakeatsuak izan eta zaurituak bi izan ziren, oso zauri arinekin. Gobernu Batzordea genuen eta ez ziguten sartzen uzten, horregatik erabaki genuen poliziari deitzea. Poliziak alboratu baino ez zituen egin, gu sartu ahal izateko, eta Nafarroako Barne kontseilariak parlamentuan azalpenak eman behar izan zituenean, alderdi guztiek onartu zuten poliziaren jokabidea ahal bezain leunena izan zela. Bestalde, protesta taldea txikia zen, ez ziren ikasleen gehiengoaren adierazgarri, eta horren seinale da baita ere protesta-gai zutena [seihileko hainbat ikasgai urte osoko ikasgai bihurtuko dituen



erreforma] onartu egin dela, kontrako boto bakarrarekin.

EHU ere, ikasleek Ertzaintzarekin izan dituzte istiluak. San Mamesen ikasleak egiten ari ziren Herri Unibertsitatea izan zen abiapuntua; ertzainek indarrez irtenarazi zituztela salatu dute ikasleek.

I. Goirizelaia: Urrunagotik datorren kontua da hau guztia. Azken urte honetan etengabe itxialdiak izan ditugu hainbat fakultatetan, eta Arabako campusean dago istiluen iturburua. Kritikak, edozein direla ere eta edozeinengandik, unibertsitateko saltsa dira, guztiz beharrezkoak. Ikasleek Herri Unibertsitatea antolatzea, inolako arazorik gabe egiten dena, funtsezkoa da unibertsitate gisa, eta duen balio guztia ematen diot biltzeari, antolatzeari, eztabaidatzeari. Hori babestea dagokigu. Baina Gasteizen gertatzen dena benetako basakeria da, suntsitzailea, errektoreordearen atea erretzeraino. Hori baketsua al da?

Baina hori ondoren gertatu zen...

I. Goirizelaia: Bai, baina itxialdiak eta Gasteizko ekintzak aurrekoak dira. Eta San Mamesen, Herri Unibertsitateko ekintzak onartu ziren, baina zentroko zuzendariak ez zuen itxialdia onartu eta ikasleak ateratzeko ertzainei deitzea erabaki zen. Horrek ikasleak haserretu eta ondoren Leioan egin zuten manifestazioa ez zen inolaz ere baketsua izan: haurtzaindegitik sartzen saiatzea, atea mazo batekin puskatzea, zaindariei eraso egitea... ez dut uste baketsua denik.

Eta une horretatik aurrera ertzainek esku hartu behar izan zuten.

Suminduago ikusten dituzue ikasleak, murrizketak eta erreformak direla-eta? Nahikoa hartu-eman duzue ikasle mugimenduekin?

A. Carlosena: Guk kasik eguneroko hartu-emana dugu ikasleen ordezkari legitimoekin: Ikasle Batzordea, unibertsitateak aitortutako ikasle taldeak eta organo askotan ordezkaritza duten ikasleak, tartean organo gorenean, Gobernu Batzordean. Baina batzuetan taldeak daude, ez beti unibertsitatekoak, modu koiuntural eta interesatuan unibertsitateko ikasle taldeetara batzen direnak, eta horiek zailagoak dira ezagutzen eta kontrolatzen. Gazteen artean haserre dago, eta batzuetan unibertsitateetan askatzen da haserre hori. Adibide bat jartzearren, tasen igoerak amorratu dituen gazteen protestak unibertsitateak jan ditu, sarri jendeak ez dakielako tasak igo dizkiona unibertsitate den, erkidego-gobernua edo Madrilgoa.

I. Goirizelaia: EHUn 50.000 ikasle ditugu eta istilu esanguratsuren bat gertatu denean gehienez 200 bat ikasle izan dira tartean; ez dakit hortik estrapolatu dezakegun ikasleen artean gero eta egonezin handiagoa dagoenik. Egia da ikasleak gertatzen ari denaren aurrean antolatzen ari direla, jardunaldiak eta aldarrikapenak planteatzen, jarrera kritikoa adierazten... eta azken urteotan areagotzen ari dela ueste dut, aurretik ikasleak kasik desagertuta egon baitira. Halako ekintzak interesgarriak iruditzen zaizkit. Eta harremanari dagokionez, guk mundu guztiarekin hitz egiten dugu eta horretarako bitartekoak ditugu. Ikasleek ordezkaritza dute organo ofizialetan, baina hortik harago, hitzordua eskatzen digun edonorekin hitz egiten dugu.

Finantzazio arloan, Nafarroako Gobernuak NUPera diru gutxi bideratu duela kexatu izan zarete. Gobernu berriarekin, zein finantzaketa eredu ari zarete eztabaidatzen?

A. Carlosena: Azken urteetan finantzaketa asko jaitsi digute; proportzionalki, beste hezkuntza arlo batzuetan baino gehiago. Gobernu berriarekin, oraindik ez dugu aurrekontu proposamenik egin, baina hainbat urtetarako finantzaketa eredu adosten ari gara, orain arte irizpide jakinik gabe egin baitira aurrekontuak. Diru-kopurua zehaztea izango da hurrengo urratsa, eta harreman ona iza-

ten ari gara Gobernuarekin; unibertsitateak nafar gizartean jokatu behar duen rola ulertzen ari dira eta esperantza daukagu finantzaketa hobetu egingo dela.

Eusko Jaurlaritzarekin, zein da EHUn harremana finantzaketa arloan?

I. Goirizelaia: Erakundetik erakunderako harremana dugu. Finantzaketa eredu finkatua daukagu, baina aurreko unibertsitate plana ez zen bete eta oraingoa betetzeko ere zailtasunak izaten ari gara.

Finantzaketa bide berriak aipatu izan dituzue. Gradu, graduondo eta masterretan enpresa pribatuek esku hartzeak ekarri dezake unibertsitatearen pribatizazio zuzen edo zeharkakoa? Europatik ezarri nahi den unibertsitate erreformak pribatizaziorako joera duela salatu du hainbatek.

I. Goirizelaia: Duela hamar urte berdina esaten ziguten, ikasketak Europara egokitu behar izan zirenean, eta oraindik ez da halakorik gertatu. EHUn ez dago inongo enpresarik zein gradu eman behar den erabakitzen duenik edo master baten jabe egin denik. Enpresek unibertsitateari laguntza ekonomikoa ematea ez dut gaizki ikusten, beti ere ikasgaien edukia eta irakaskuntzaren ardura gurea den heinean. Zorritzarez, ez dugu enpresa ilararik ate joka, dirua jarri nahi dutela esanez. Nahiko nuke! Baita babesa eman nahi diguten ikasle ohiak izatea ere, egun duguna baino heldutasun handiagoa emango ligukeelako. Erabakimena gure organoetan mantentzen den bitartean, unibertsitatearen autonomia mantentzen den bitartean, non dago arazoa?

A. Carlosena: Europatik unibertsitate pribatizatze politikaren bat dagoela esaten denean, bitxia egiten zait, Europak ez duelako politika bateraturik ezertan, eta unibertsitateak pribatizatze azpilanean ari direla pentsatzeak ez du zentzurik. Kontua da ia herrialde guztietan unibertsitateen finantzaketa publikoa murrizten ari direla. Ez dirudi finantzaketa publikoa asko hobetuko denik, eta irudimentsuago izatera eta ezberdin lan egitera ohitu beharko gara, dirua soilik administrazio publikotik jaso beharrean: enprekin eta ikasle ohiekin kolaboratuz, unibertsitateen artean baliabideak partekatuz... Unibertsitate erreforma batek ere asko lagunduko lioke gure eraginkortasunari, egungo gehiegizko legislazioak oztopo burokratiko asko eta lan karga handia sortzen dizkigulako.

Zein oinarri eskatzen dizkiozu, Goirizelaia, EAEko Unibertsitate Lege bati?

I. Goirizelaia: Autonomia Estatutuak hezkuntza eta ikerketa eskumenak EAERI onartzen dizkion arren, Madrilatik datorren araudiak etengabe oztopatzen du gure jarduna. Irakasleen egungo gestioa adibidez, Estatuko legeek baldintzatua, ez da egokia eta aldatu egin behar da, ez dugu inongo malgutasunik kontratazio onena egin ahal izateko. Unibertsitatearen gobernantzan, bestelako eredueta-rako aukera egon beharko litzateke, eta errektoreak esaterako erabakimen handiagoa izan beharko luke. Egun, erabakitzeko oso ahalmen eskasa baitu errektoreak. Batzorde Soziala daukagu, hala funtzionatu dezala ahalbidetu behar da; irakasleen soldata politikak ez die erantzuten ditugun beharrei...

NUPeK berriz, 2016-2019 Plan Estrategikoa aurkeztu berri du.

A. Carlosena: Unibertsitatearen hiru zutabeen gaineko planteamendua da, irakaskuntza, ikerketa, eta proiektzioa eta transferentzia. Horrez gain, internazionalizazioan, langilerian eta azpiegitura eta baliabideetan ere jarri da indarra. Titulazio berrien eskaintzaz hitz egin dugu dagoeneko eta ikerketan biomedikuntza izango da gure apustu nagusia. Barne-egitura ere aldatu nahi dugu, akademikoki eta administratiboki, eraginkorrago izateko.

Zein da EHU eta NUPen arteko harremana?

I. Goirizelaia: Ibilbide bateratua dugu denboran eta arlo ugaritan. Normalean, gainera, ekintza bateratu horiek ez dira errektoreengandik sortu, behetik baizik: ikerketa lantaldeak, irakasleen arteko lankidetzak... Urrats asko eman dira eta behetik gora sortzen diren hauek laguntzea errazagoa da errektoretzarentzat, goitik beherako erabakiak ezartzea baino. Bestalde, etorkizunari begira iruditzen zait egun dugun egoera politikoa mesedegarria dela instituzionalki harremanak garatzeko.

A. Carlosena: Bai, behetik gorakoa da ongien funtzionatzen duena eta EHU-rekin gertatzen zaigu, Zaragozako unibertsitatearekin bezala, hurbiltasunagatik loturak eman direla, ikerketa arloan asko, baita master bateratuak ditugulako ere. Instituzionalki, borondatea behintzat horixe da, bion arteko elkarlana. ■

IPARRALDEKO KOOPERATIBAK

SORTU, IRAUN, ALDATU

Eraldaketa sozialaren inguruko eztabaida bero-bero dago Ipar Euskal Herrian eta Frantziako Estatuan oro har. Hitzen gibealeko esanahia zein da? Dena ez da eraldatzaile, dena ez da sozial. Gurean kooperatibek izandako bilakaerari errepasoa egin dio Xabier Itzainak Lanki ikertegiaren Kooperatibagintza Topaketetan. Bere ustetan, gizarte ekonomia indartzen ari den fase berri batean sarturik dago.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

“Berrikuntza sozial guztiek ez dute gizarte eraldaketa ekartzen, dependitzen du hitzen gibealean zer ezartzen den”. Horrelaxe laburbildu du Xabier Itzaina Bordeleko Unibertsitateko ikerlariak egun ekonomia eraldatzailearen baitan dagoen eztabaida nagusietako bat. Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiak ekainaren 3an Eskoriatzan antolatutako IV. Kooperatibagintza Topaketetan hitz egin zuen Itzainak.

Topaketek kooperatibagintza eta eraldaketa sozialaren arteko harremana aztertzea zuten helburu, eta bi mundu horietan dabilzan eragileak elkartzu ziren. Xabier Itzainak antropologiaren arloan duen esperientzia baliatu zuen azaltzeko badaudela zuzenki ekonomikoak ez diren arazoak garapen ekonomiko eraldatzaileak ekar dezaketanak: “Guk lurralde erregimena deitu diogu”. Bere hitzetan, lurralde bateko eragileen artean dagoen konfidantza, erregulazio ekonomiko eta politikoa, eta arazo publikoak definitzeko parte-hartze maila funtsezko dira “tokiko garapena” gizarte ekonomia ardatz bihurtzeko. Premisa horrekin, Iparraldean gizarte ekonomia izandako ibilbidearen irakurketa egin du ikerlariak, eta hiru fase bereizi ditu: sortu, iraun eta aldatu.

Sortu: euskal mugimendu kooperatibista

70eko hamarkadan hasten da Ipar Euskal Herrian gizarte ekonomia “ziklo moderno”, Itzainaren aburuz. Noski, hori baino lehen ere bazen: XX. mende hasierako *txuri* eta *gorrien* –klerikal monarkistak eta antiklerikal errepublikarrak– arteko lehian sorturiko sareak, baserritarren auzolana, edo arrantzale kooperatibak.

Nolanahi ere, duela 40 urte kooperatiba mugimendu berria hasi zen eraldaketa sozial helburu argi eta garbi batekin; enpresa horiek sortzea ez zen erabaki “arrazionala” izan ekonomia ikuspegitik: “Beti adibide bera jartzen dut, baina hala da, altzari kooperatiba baten sortzaileak erraten zidan: ‘hastapenean, 1982an sortu genuenean, baginen 40 langile eta geure artean inork ez zekien karrera bat ere egiten, baina lehen motibazioa zen lana sortzea herrian’”. Hain zuzen ordukoa zen *lana herrian* lelo ezaguna.

Ipar Euskal Herriko langile kooperatibek mugimendu sozialtzat zuten euren burua, baina Hegoaldean Mondragonek kooperatibismoa modu integratuan garrantzeko emandako pausoei beha beti ere. Horrela sortu zen 1982an Lana el-

karte, bere araudian “euskal mugimendu kooperatibista” gisa definitzen zena. Bestalde, 1979an Hemen elkarte sortu zen eta 1980an Herrikoa sozietatea, aurrezki herrikoak bultzatzeko.

Itzainak azaldu duenez, euskal nortasunak badu leku handi bat mugimendu horretan: “Ez euskalduntasun idealizatu bat baizik errealtateari errotua”. Horri esker Hego Euskal Herriko laguntzak jasotzen hasiko dira kooperatiba proiektuak, eta Frantziar Gobernuak aurka jotzen duenean mobilizazio garrantzitsuak egingo dira finantzaketa horren defentsan. Tokiko garapena arazo soziopolitiko bezala ikusten hasia zegoen beraz. Hegoaldeko ideia batek indarra hartu zuen gainera: barnealdearen industrializazioa. “Sinplifikatzeko –dio Itzainak–, Iparraldeko abertzaileek beren lurraldea azpigaratua bezala ikusten zuten”.

Iraun: lurraldearen lehen ezagupen ofiziala

80ko hamarkadan kooperatiba batzuek iraungo dute, beste batzuk ordea desagertu egingo dira. Sare txikia izaki, enpresa garrantzitsu batzuen porrotak tratatuko du mugimendua, hala nola 1985ean Arrosako Denek altzari fabri-



ka ixtea. Faktore ekonomikoak daude atzean, baita tentsio politikoa ere. Asko gogoratuko dira 1984an Denek, Alki eta beste zenbait lantegi kiskali zituela suak, GALEk errefuxiatuen kontra aldarrikatutako erasoetan.

Frantziako Estatuak kooperatibekiko zuen ikuspegiak ere ez du lagunduko. 70eko hamarkadan langabeziaren aurkako tresna bezala hartzen dira, bada 80koan beste elkarte batzuei emango zaie funtzio hori. Tokiko garapenaren arloan, ordea, gogoeta zenbait bultzako ditu Estatuak eta horien ondorioz sortuko dira lurraldeari lehenbizikoz ezagupen ofiziala emango dioten hainbat erakunde. Itzainak Garapen Kontseiluari jarri dio arreta: “Interesgarria da ikustea gizarte zibila ordezkatzeko duen erakunde horretako lehen lehen-dakari eta zuzendariak kooperatiben mundutik datozela. Beraz, kooperatibetako jendeak beti tokiko garapenaren problematizatzearen bihotzean daude”.

Ramuntxo Kanblong dugu horietako bat, 1975ean Copelec Ipar Euskal Herriko lehen kooperatibaren sortzailea, 1994an Garapen Kontseiluko presidente egin zuten eta honela azaldu zion ARGIAri garai berean: “Enpresak kanpotik etortzen ziren eta Frantziako

Herrikoa sozietatearen ekarpenarekin sorturiko Lurzaindiak laborari gazteak laguntzen ditu. Irudian, Amile Abou-Antoun Arüeko (Zuberoa) bere etxaldean; proiektua aurrera ateratzeko diru bilketa egin du espekulazioaren kontrako taldeak.

garapenari esker bizi zen Iparralde. Eta hori izan da garrantzitsua, hemengo jendea bera hasi dela gauzak sortzen, garapen endogenoa behar baitzen”.

Aldatu: mugimendu sozial berriak

Xabier Itzainak dioenez badira 10 urte gizarte ekonomia Iparraldean beste fase batean sartua dela, eta joera hori indartzen ari da gainera. Hori erakusteko mugimendu sozial berrien ekarpena nabarmendu du.

Azken hamarkadan ekimenak etengabe sortu dira finantza solidarioan, emazte eta gazteek enpresak sortzeko, laborantzan... 2005ean Euskal Herriko Laborantza Ganbara sortu izana itu bat izan zen, eta berrikiago euskal mone-ta abiaraztea ere bai. Itzainaren ustez 70eko mugimenduaren segida izan liteke, baina desberdintasun batzuekin: “Gehiago aipu da orain ingurumena, trantsizio energetikoa, genero berdintasuna... eta gutxiago barnealdearen in-

dustrializazioa”. Industriaren alboratze horrek kooperatibista historikoengan kezka sortu duela ziurtatu du Itzainak.

Kontsumo ereduan eta mugimendua-ren aniztasunean ere aldaketa nabarmena da –ekologista, laborari edo feministez gain, sindikalgintza frantsesaren zati bat ere barnebildu du–, eta kooperatibak berak ere aldatu dira. 2002an legediak “Interes orokorreko sozietate kooperatiboa” sortzeko aukera eskaini zuen Italiako kooperatiba sozialek inspiratuta, eta orain partzuergo anitzek har dezakete parte enpresan. Kanaldude herri telebistaren adibidea jarri du Itzainak, forma hori hartu baitu Aldudarrak Bideo kooperatibak, eta horri esker Garazi Baigorri herri elkargoa sartu da bertan.

Gobernantza politikoan gertatzen ari diren funtsezko aldaketek ere tokiko garapenean eta gizarte ekonomian eragina izango dutela iragarri du ikerlariak: “Hasteko, jada esaten ahal dugu eztaba-ida publiko bat ireki duela herri elkargo bakar bat osatzeko harturiko erabakiak eta lurraldearen bilakaeraren aspektu guztiak landuko dira hurrengo hilabete eta urteetan”. Garapen eredu berriak sor litezke hortik, Itzainaren aburuz, eta nork daki, agian Hegoaldea jarriko da Iparraldeari beha orduan. ■

Herri bazkari ekologikoak **ON(gi) EGIN!**

Herri bazkariko txartela erostean, gehienok antzeko jakiak espero izaten ditugu. Baina azken urteotan hori ere aldatzen ari da. Jaki ekologikoak asmo huts izan beharrean, hainbat jaietan plater bihurtzen ari dira. Horren lekuko izango da aurten, besteak beste, Erreterriako herri bazkarira hurbiltzen den oro.



Irati Sarasua Arabaolaza

@iratisarasua

“Euskaldunok harrotasunez diogu gu-rean oso ondo jaten dela, baina horrek, normalean, ez du bat egiten herri bazkari bateko irudiarekin, eta hori irauli nahi dugu”. Irantzu Gallego Lur Lan Baseritarren Elkarteko kidearen hitzak dira. Berak prestatzen dituen herri bazkarietan produktu ekologikoek protagonismo berezia izaten dute, eta bertako jaki guztiak ekologikoak ez badira ere, gertukoa, kalitatezkoa, denboraldikoa eta jasangarria izateari ematen dio bereziki garrantzia. Euskal Herrian ekoiztutako eta nekazaritza ekologikoko ziurtagiria duten produktuekin eginiko bazkarien bitartez, egungo jaietako bazkari ezagunenetako errealtatea aldatzearen aldekoa da Gallego. Goiabe Baserriko Asier Bastarrikak ere halako bazkariak egiten ditu, baina %100 bertakoak eta ekologikoak diren produktuak erabilia. Nabarmen du ohiko bazkarien eta euren arteko ezberdintasuna lehen-

gaian bertan ikus litekeela: “Merkatuari erreparatuta, maila gorenekoak dira gureak, bai kalitate aldetik, ekoizpen ereduan, baita ardura sozial eta ekologikoari dagokionez ere”.

Bi protagonistek aspalditik dute halako herri bazkarietan jaki ekologikoak txertatzeko nahia. Baina orain arte apenas izan dute eskaririk. “Aspalditik ikusten genuen kontraesan handia gure festa eredu aldarrikatzaileetan, diskurtsoaren eta bertan kontsumitzen zen generoaren artean”, dio Bastarrikak. Euren lehen aldiz Donostiako Piraten eskutik iritsi zitzaizen halako bazkari bat egiteko proposamena. Gallegok, aldiz, duela hiru urteko ARGIA Eguna du buruan, hura izan baitzen haren lehen esperientzia. Nabarmendu dute azken urteotan inoiz baino eskari gehiago izan badute ere, ez dutela bilakaera nabarmenik ikusi, eta gizartean ekologismoaren gaiari buruz esaten eta egiten denaren artean alde nabaria dagoela.



Diskurtsoa aurretik

“Orohar ikusten dugu gizartean kezka zabaltzen ari dela elikadura eta egunerokotasuna uztartzearen bidean. Igar-tzen da. Baina iruditzen zait errealtatea baino azkarrago hedatzen ari dela diskurtsoa”. Hori da Bastarrikaren ikuspe-gia. Errealtate hori puskatu nahi izan dute Erreterriako Jai Batzordean. Lau urtez bazkaria antolatzen aritu ostean, aurten, lehen aldiz, Madalenetan egin-go duten bazkaria bertako jaki ekologi-koekin osatuko dute. “Orain arte Eusko Label ziurtagiria duten produktuak era-bili izan baditugu ere, urrats bat gehiago egin nahi izan dugu, eta horretarako, produktuen %100 bertakoa izatea da aurtengo apustua”, dio Jai Batzordeko Soroxoro Elkarteko kide batek. Batza-rrean proposamen horrekin eszepti-koak zirenei azaldu zieten menu osoa bertako produktuekin egitea lortuko zutela, eta beste ekonomia mota bat sustatzeko modua ere bazela ekoizle eta



*Donostiako Piratek
iaz bihurtu zuten
euren bazkari
nagusia ekologiko.
DONOSTIAKO PIRATAK*

enpresa horiekin bat egitea. Arrazoiak azaldu ostean, askok iritzia aldatu zutela diote. Euren ustez, jai giroan halako aldarrikapen bat egitea ezinbestekoa da, eta utopikoa izatetik, egin daitekeela erakustera pausoa eman dute.

Baserritarren Lur Lan Elkarteko Gallegok, aldiz, eskariari erantzunez ekin zion lan honi: “Askotan galdetzen ziguten, proposamenak heltzen zitzaizkigun, eta horri erantzun nahi izan diogu”. Eta nabarmentzen du, bazkariara joandakoek normalean errepikatzen dutela, halako bazkari batera lehen aldiz joan eta beste bat antolatzen ari direnen deiak ere jaso izan dituela. “Beti harre-ra oso ona izan dugu. Jendeak zaporea eskertzen du, ongi landuta dagoen produktu bat erabiltzen duzunean nabaritu egiten da”. Halako bazkarien bitartez janari ekologikoa herritarrengana hurbiltzea lortzen dutela dio Gallegok, horixe dela euren helburu nagusia, presentzia bera.

Mitoak puskatuz

“Jendea erakutsi nahi genion benetan badaudela bertan ekoizleak, janari osasuntsua sortzen duen jendea, eta guk gizarte gisa babestuz gero, oso produktu onak dituztela eskaintzeko”. Elkarte-ko kideek uste dute askotan aurreiritzi asko dagoela bazkari ekologikoaren inguruan, “benetan ez dela hain ekologikoa edo bertakoa ezin dela benetan izan pentsatzen du jendeak”.

Gallegok eta Bastarrikak ziurtatzen dute bertako produktuekin osatzen dituztela menuak. Biak ala biak ahal dela Euskal Herriko nekazari edo ekoizleak izateaz gainera, ingurukoak lortzen saiatzen dira. “Halako bazkari bat egin aurreko astea erotzeko modukoa izaten da, baserritar batekin eta bestearekin hitz egin behar da, sukaldean aritzeaz gainera. Puzzle bat osatu behar da azken batean”, dio Bastarrikak.

Janari ekologikoari lotzen zaion adjektibo bat “garestia” da, eta hori horrela, pre-

zioari ere erreparatu diote Errenteriako Jai Batzordeko kideek: “Iazkoarekin alderatuta, hiru euro garestiagoa da berez aurtengo menua, eta horrek ere arduratzen gintuen, halako bazkari baten prezioa herrikoia izan behar delako, herritarren gehiengoak ordaintzeko modukoa”. Eta lortu dute iazko prezio bera eskaintzea; Jai Batzordeak hiru euro horietako bat jarriko du, eta Oarsoaldeko barazkiak erabiliko dituztenez, eta bertako kontsumoa sustatzea helburu duenez, beste biak Udalak ordainduko ditu. Prezioaren ezberdintasun hori orekatzeari ere erreparatu diote Gallegok eta Bastarrikak: lehenak, prezioa jaitsi asmoz, boluntarioak eskatzen ditu janaria banatzen laguntzeko, hala eskulana merketu dezakeelako. Eta bigarrenak, buruan du bazkaldu aurretik janari ekologikoari buruzko tailerra egin ez bazkarian jango dutena lantaldean egitearen ideia. Eta menua sinpletzera jotzea da biek duten beste aukeretako bat: babarrun-jana egitea, kasu.



DANI BLANCO

Lehen ARGIA Egunean zerbitu zuen bere lehen bazkari ekologikoa Lur Lanek.

Menuan, aniztasuna

Gehienetan garaiko barazki eta basa-landareekin eginiko entsalada izaten da herri bazkari ekologikoetara bertaratutakoei harrera egiten dien lehen platera. Bigarren platera, eskaeraren arabera izaten da; arroza, berenjena beteak, tortilak edota haragi gisatuak izan ohi dira nagusi. "Inprobisatzeko aukera izaten dugu", dio Bastarrikak barre artean.

Errenteriakoek, adibidez, Bastarrikak garaiko barazki eta loreez osatutako entsalada izango dute jaietan. Horren ostean, bi aukera izango dituzte: menu arruntean haragi gisatua eta menu beganoan ezkurkia. Horrez gain, haurrentzat menu berezia prestatuko dute, bigarren platera eurentzat hanburgesa izango baita. "Guk ere ez genekien nola osatu halako menu bat, argi genuen aldaketa handia zela, eta Asierrek emandako ideiek asko erraztu digute menuaren osaketa, bereziki menu beganoaren kasuan". Halako bazkarietan ohikoak diren jakiak kendu eta beste batzuk sartzeak beldurra sortu zien Soroxoro Elkarteko kideei. "Nire txuleta puska kendu didate, eta arroz pittin bat eta lau letxuga orri jan ditut" inork ez pentsatzea zen euren nahia, eta ondorioz, asko hitz egin eta pentsatu dute menua osatuko duten plateri buruz.

Jaiak gizartearen ispilu

Gizartea aldatu nahi bada, jaietan eragitea garrantzitsua dela diote errenteriarrek, festen erdigunean egoteak oihartzun handia duelako, ezinbestean. Ideia horrekin bat egiten du Gallegok

ere: "Gu ere gizartean sartzea ekartzen du ekintzak berak, komunikazio modu bat baita, nor garen eta zer egin litekeen erakusten dugu halakoetan". Guztiaren oinarrian ideologia bat, bizitzeko eta pentsatzeko modu bat dagoela diote, "inplikatu" egiten direla ziurtatzen dute, eta "ederrena" hori dela ere bai. Askotan etekin ekonomikorik ateratzen ez badute ere, egiten dutena erakusteak eurentzat berebiziko garrantzia duela uste du.

Soroxoro Elkarteko kideek aldarrikapena plazaren erdigunera eraman nahi izan dute, iruditu zitzairen lan egiteko eta euren ideiak zabaltzeko oso espazio interesgarria zela jaietan murgiltzea: "Badaude aldarrikapen batzuk eremu mugatua dutenak, eremu txiki batzuetara soilik heltzen direnak. Honek normalean mugitzen garen eremuetan topatuko ez ditugun lagunengana heltzeko bidea zabaltzen duela iruditu zaigu".

Bastarrikak argi du gaur egun munduan dauden arazoetako bat elikaduratik datorrela, eta oso oinarritzko arazoa dela pentsatzen du, gainera: "Jaki ekologikoa nola ekoizten den ikusita, nola banatzen den... Zentzu guztietan gure osasuna zaintzeko, ingurumena zaintzeko eta beste ekonomia eredu bat bultzatzeko abantaila guztiak ditu". Amestutako gizarte hori irudikatzen hasteko bultzada bat dela dio, eta horregatik haren etxeok bizitza horri eskaintzen diotela: "Gure kontsumoa horretara bideratuta dago, kontraesan askoren artean, baina pausoak emanaz, beraz, guretzako erabateko garrantzia du. Herri bazkarietan, eta gainontzeko eremu guztietan". ■

SUSTRAIAK
catering

ekologikoa
begetarianoa
etxeko sukaldaritza
Km 0
herri bazkariak
etxeko zerbitzua
ekintzak
eta...behar duzuen!

645 139 433 / 645 046 005
info@sustraiakcatering.com
www.sustraiakcatering.com

ON EGIN!
MAHAIAN ERE INGURUMENA ZAINDUZ!

ecofestes
©Eusko Herria
irribide ekologikoa zure ekarpenarekin !!
www.ecofestes.com

Iñaki Alegria, Iratxe Esnaola (UEU)

“UNEDen alternatiba izan nahi dugu”

Euskarazko *on line* unibertsitatea sortzeko momentua dela uste dute Iñaki Alegria (UEUko zuzendaria) eta Iratxe Esnaolak (UEUko talde eragileko kidea). Gaztaroa igaro arren, jendeak ikasteko irrika du: lan berria aurkitu nahi duelako, gaztetan ikasi ez zuelako, jakintza maite duelako... Ikasle berriok ordea, ez doaz ikasgelara, sarean dabilta. UEUk hutsunea nabarmendu du: euskaraz *on line* ez dago gradu bat bera ere.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Hutsune bat betetzea al da asmoa?

Iñaki Alegria: Ez dago asmorik aurrez aurrekoa ordezkatzeko, unibertsitate eredu alternatibo bat da, beste profil bateko jendeari begira egina. Nolabait esatearren, UNEDek (Universidad Nacional de Educación a Distancia) dituen ikasketen modukoak eskainiko lirateke eta ikasle profil horrentzat, baina teknologia berrietara eta metodologia pedagogiko berrietara egokitua.

Iratxe Esnaola: Xede publikoa diferentia da.

Ez litzateke UNED bezalakoa izango?

I. Esnaola: UNED ez da euskaraz.

I. Alegria: UNEDek dio urruneko unibertsitatea dela eta guk diogu gurea *on line* edo *e-learning* izango dela.



I. Esnaola: Urruneko ikaskuntzan etxetik ari zara, zure kabuz, eta azterketetara joaten zara. *On line* ikaskuntzan ikasturte osoa *on line* egiten duzu, ariketak daude, elkarlana dago, ez zabilta zure kabuz, tutoreak dituzu, talde lanak daude, irakasle motak bereizten dira. Kontzeptu oso desberdina da, eta oso lotua dago eredu pedagogikoarekin.

Nork heldu behar dio egitasmo horri?

I. Esnaola: UEU prest dago proiektu hau martxan jartzeko, baina ezin du bakarrik egin. Eusko Jaurlaritzaren laguntza ezinbestekoa da, eta beste unibertsitateen laguntza ere bai, beste maila batean eta beste mota batekoa, baina ezinbestekoa da. Aurrez aurreko unibertsitateek proiektu honekin iraba-

zi egiten dutela sinetsi behar dute. Bakoitza bere aldetik ibilita, euskarazko *on line* eskaintzak ez du lortuko behar duen garapen erritmoa bermatzea.

Zein hartu-eman izan dituzue beraiekin?

I. Alegria: 2003an hasi ginen Eusko Jaurlaritzarekin hitz egiten. Gobernu alaketarekin zapuztu zen, eta agian goizegi zen. Azken bi urteetan berriro izan dugu hartu-emana, baina oso azalekoa. EHUrekin ere egon gara, Jaurlaritzak esanda. Ohiko unibertsitateak aurrez aurreko irakaskuntzan ari dira, krisia dela-eta baliabide aldetik hala moduz dabilta.

Hitz onak jaso ditugu lankidetzarako, baina orain administrazioaren apustu argi bat behar da.

Unibertsitateek administraziora bideratu zaituztete.

I. Alegria: Eta alderantziz. Jaurlaritzak badauka unibertsitate plan bat, eta unibertsitate plan horretan *on line* irakas-kuntza bultzatu behar dela agertzen da, baina ez guk planteatzen dugun zehaztasunarekin. Jaurlaritzak esaten die unibertsitatei eurek egin behar dutela eta unibertsitateek erantzuten dute aurrez aurreko unibertsitatea direla eta nahiko lan dutela.

I. Esnaola: Guk ofizialki ezin dugu titulurik eman, ez garelako unibertsitate bat. Beste unibertsitate bat sortzea proposatzen dugu, bere tituluak eman ditzakeena, baina beste unibertsitateekin lankidetzan.

I. Alegria: Gerta daiteke lehenengo urratsean tituluak UOCek [Universitat Oberta de Catalunya] edo EHUK ematea, baina asmoa unibertsitatea sortzea da.

I. Esnaola: Eta horrek ez du esan nahi aurrez aurrekoek *on line* eskaintza garatuko ez dutenik.

I. Alegria: Garatzen ari dira, baina gradu osorik ez dago euskaraz. Gaztelaniaz UNED dago eta Universidad Internacional de La Riojan (UNIR) euskaldun asko ari da ikasten. Guk UNEDen alternatiba izan nahi dugu. UOC ere horrela sortu zen duela hogeita urte. Kataluniak UNEDen transferentzia eskatu zuen eta ez zuten lortu, eta esan zuten bertakoa sortuko zutela. Fundazioa egin zuten gobernuaren, hango unibertsitate batzuen eta Caixaren artean. Proiektu nazionala egin zuten UNEDi alternatiba bilatzeko, eta gainera berrikuntzarekin, *on line*, bi hitzetan esateko apunteak bidali eta azterketak egin formula gaindituta.

NUPEkin traturik izan duzue?

I. Alegria: Hitzarmena daukagu, baina *on line* gaian atzera dabilta. Dena dela, egitasmo honek aukera emango luke lankidetzara sustatzeko ez EAEko unibertsitateekin bakarrik baizik eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin eta Baionako zentroekin ere bai. Baina lehenengo bultzada Jaurlaritzak eman behar du.

Egitasmo honek ezin du izan gobernuan dagoen alderdi politikoak gidatutako zerbaite. Kontuan hartu behar da gradu bat lau urte direla zeharo horretara jarrita, eta eredu honetan jendeak 6-8-10 urtetan egingo du, epe luzeko proiektua da.



» **IRATXE ESNAOLA:**

“Gure egoera oso bitxia da, gai sentitzen gara dena aurrera eramateko, baina laguntza behar dugu. Esan dezagun kasik laguntza finantzarioa”

» **IÑAKI ALEGRIA:**

“*On line* unibertsitateak toki guztietan ari dira sortzen: Errioxan, Valentzian, Bartzelonan... Horiek hemen ate joka ari dira, eta guk, euskaldunak izateaz gain, beste hizkuntza batzuk ere badakizkigu, eta gutxieneko erreferentzialtasuna lortzeko gero eta zailagoa izango dugu”

I. Esnaola: Apustu iraunkorra izan behar du. Euskararen gaineko beste proiektu guztietan gertatzen den hutsune bera dago hemen ere, egitasmo honen ardura euskaltzale ez direnena ere izan beharko luke. Beharbada gero zuk ez duzu euskaraz ikasiko unibertsitate horretan, beharbada ez dakizu euskaraz, baina zure babesa edo kontra ez egotea behintzat bilatu beharko da. Ez da euskaltzaleon proiektua, euskaraz ikasteko eskubidea bermatzeko proiektua izan behar du.

I. Alegria: Proiektu hau momentu honetan egitekoa da, eta batera etortze bat behar da.

Zergatik diozu momentua dela?

I. Alegria: 2003an agian goizegi zen gizartea konturatzeko eredu hau funtsezkoa izango zela. Orain berriz, halako unibertsitateak toki guztietan ari dira sortzen: Errioxan, Valentzian, Bartzelonan UOCez gain beste bat sortu da. Horiek hemen ate joka ari dira, eta guk, euskaldunak izateaz gain, beste hizkuntza batzuk ere badakizkigu, eta gutxieneko erreferentzialtasuna lortzeko gero eta zailagoa izango dugu.

I. Esnaola: Proiektu hau egoteak ez baitu esan nahi euskaldunok *on line* ikasten ez dugunik. Ikasten dugu, baina beste unibertsitate batzuetan eta beste hizkuntza batzuetan. Euskaraz ez dagoelako. Garaia da, hain zuzen, nabaria delako jendartean eskari hori badagoela edo

ikasteko modu horiek gero eta erabilia-
goak direla. Gaur egun autoformazioa-
ren grina oso txertatua dago jendartean.

Bideragarritasun ekonomikoa aztertu al duzue?

I. Alegria: Prezio publikoak behar dira, prezio pribatua jartzen baldin baduzu, UNED hor egonda, eta euskaldunak er-
daldunak ere bagarela kontuan hartuta, hor arazo bat dago. Bestalde, ezin da esan merkea dela, baina oinarri on bat jartzeko ez da izugarritzko dirutza gasta-
tu behar, porlanean, eraikinetan... Ikasle taldeak ezin dira oso handiak izan, bai-
na diru gutxirekin proiektu polita egin daiteke.

I. Esnaola: UEUK bere bidea egin du ho-
rretan. Definituta dauka *on line* hezkun-
tzako bere eredu pedagogikoa. Mood-
le erabiltzen du graduondokoetan eta
etengabeko formazioan. Hori guztia
garatuta dago, beste ikasketa maila ba-
tuetara egokitzea litzateke kontua.

I. Alegria: Milioi bat euro zuri zer irudi-
tzen zaizu, diru asko edo gutxi?

Gutxi.

I. Alegria: Bada, milioi batekin gauzak
egin daitezke.

I. Esnaola: Egin dugun bideragarritasun
azterketaren arabera urtean gradu ba-
koitzeko 50 ikasle beharko lirateke.

Dozena-erdi bat gradurekin hastea pro- posatu duzue.

I. Alegria: UOCekin elkarlanean 2-3 ti-
tulazioarekin hastea pentsatu genuen,
baina denbora aurrera doa, eta agian,
unibertsitatea sortu eta 6-8 titulazioe-
kin hasi behar dugu.

I. Esnaola: Dena dela, irekiak gaude, ez
da egitasmo itxia. Hasieran bi gradure-
kin eta gero gradualki igo? Bada, gra-
dualki igo.

Ikasle eta irakasle beharrak aztertu al di- tuzue?

I. Alegria: Enpresen Administrazioa ti-

tulazioa goitik behera aztertu dugu. Lan-
gabeziarekin eta ehun produktiboarekin
uztar daitekeen titulazio batekin hasi
nahi genuen, eta euskaraz eskaintzeko
zailtasun gehiago duela dioen mitoaga-
tik ere aukeratu dugu. Azterketa eginda,
ikusi dugu adituak badaudela, irakas-
leak eta tutoreak badirela.

I. Esnaola: UEUK ez dauka zalantzarik
euskaldun irakasleria badagoela, hain
justu, UEUn asko eta asko biltzen dira,
eta ez dugu aurreikusten inolako arazo-
rik irakasleak aurkitzeko.

I. Alegria: Bestalde, hasieran titulazio
bakoitzeko inbertsio bat egin beharko
da, materialak egokitzeko, plataforma
prestatzeko...

I. Esnaola: Gure egoera oso bitxia da, gai
sentitzen gara dena aurrera eramateko,
baina laguntza behar dugu. Esan deza-
gun kasik laguntza finantzarioa.

I. Alegria: Diru aldetik eta sendotasun
aldetik. Ezin diozu esan jendeari, "etorri
gurekin ikastera!", eta handik bi urtera
jarraipenik ez izan, dirurik ez dagoelako.

I. Esnaola: Erabaki politiko bat behar
da legegintzaldiz legegintzaldi aurrera
jarraituko duena.

Aztikerrek, zuek eskatuta, 25-55 urte ar- teko euskaldunei galderak egin dizkie balizko ikasleak eta haien ezaugarriak jakiteko.

I. Alegria: Galdetu zitzaion ea aurrei-
kusita zuten unibertsitate mailako ikas-
ketak egitea, *on line* egingo litzuzkeen,
euskaraz egitea eragozpena litzatekeen,
eta galdera gehiago. 700 erantzun lor-
tu genituen. Ehuneko lauk aurreikusita
zeukan ikasketak egitea, beraz 25.000ko
unibertsoa ateratzen zen. Euskara
%10entzat zen eragozpena. Titulazioe-
tan eta prezioetan iritzi desberdinak
zeuden. UEUKideen eta UEUKo ikasta-
roetan egon direnen artean, Google bi-
dez, galdeketa xumeagoa egin genuen,
eta 800 erantzun lortu genituen. Horrela
zehaztu genituen titulazioak, eta argazki
zehatzagoa daukagu.

Zein titulazio dituzue buruan?

I. Alegria: Bi gradurekin hastekotan
Enpresen Administrazioa eta Psikolo-
gia dira lehenetsitakoak, baina ez dago
itxita. Ondoren datoz irakaskuntzarekin
lotutako tituluren bat, Pedagogia edo
Gizarte Hezkuntza, humanitateak oroko-
rrean. Ingeniaritzan berriz, batzuk zai-
lak dira *on line* egiteko, baina arrakasta
handia edukitzen ari da Multimedia In-
geniaritza bat, Informatika eta Ikus-en-
tzunezkoak batera lantzen dituen bat.

I. Esnaola: Eskaintza oso oparoa da eta
arrakasta zeinek duten jakitea, hau da,
zein titulazio diren bideragarriak jaki-
tea, erraza da.

Euskal Unibertsitatea egitasmoa izan zuen UEUK beste hainbat kiderekin ba- tera. Egitasmo horrek ez du aurrera egin. Haren alternatiba al da proposamen be- rria?

I. Alegria: Osagarriak direla esango
nuke. Euskal Unibertsitatearen estrate-
giaren barruan lerro bat da *on line* zer-
bitzua, baina ez da bestearen ordezkioa.

Euskarazko on line eskaintza unibertsita- tean: egoera eta erronkak jardunaldiekin zein helburu zenuten, eta lortu al duzue?

I. Esnaola: Jardunaldiaren helburua ba-
lizko euskarazko *on line* unibertsitate
baten sorkuntzaren gaineko hausnar-
keta irekia egitea zen eta horregatik
gonbidatu genituen proiektu honetan
zeresana izango duten agente guztiak.
Hausnarketa oso oparoa izan zen eta
helburua erabat bete zela esan deza-
kegu, oso argi geratu zelako zein diren
gisako proiektu baten arrakastarako
gakoak eta, era berean, agerian geratu
zelako aurrez aurreko unibertsitateek
hasieran izango duten mesfidantza gain-
ditu behar dela. Gauzatze fasean sartu
garela esan daiteke, zehazteko fasean.

I. Alegria: Irailetik aurrera bilerak eska-
tzen hasiko gara eta, era berean, zehaz-
tapenetan ere sartuko gara, esaten du-
guna gauzagarria dela argi erakusteko. ■

BABESLEA: **HERNANIKO UDALA**



Euliskea



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Euli izugarria edo euli uxagarria da euliskea. Soroetan txori izugarriak edo txorimaloak bezala, etxe inguruan euliskea jartzeko sasoia etorri da. Aurten, gainera, udaberria freskotik doa, eta, beroak gorri-belzteko sasoia etortzen denean, orduan izango da isilduko ez den euli-burrundara, sekulakoa.

Badator euli, eltxo, liztor, eulitzar, euli beltz, ezpara, euli alfer, eulitxa, euli berde, eulimando, eulihandi eta haragi euli samalda. Geure haragietara heldu eta txista egin eta azkura lehenik eta pikorta gorri gogaikarria gero nahi ez badugu, aurea hartu. Guregandik uxatu nahi baditugu usainekin jokatzeko da gakoa. Usainez jantzitako landareek babesa eraikitzen dute esentzia bizi horiekin. Euli eta abar, fuera! Gustuko ez dituzten usainek gotortzen gaituzte; sudurretik jotzen ikasi beharrean gaude.

Zitroin edo limoi usaina lehena. Landareetan ugari samarra; etxeratzeko errazak direnak, edozein landare saltegitan aurkituko dituzunak: limoi-belarra (*Cymbopogon citratus*), luisa-belarra (*Aloysia citrodora*), ez kai limoiusaina (*Thymus x citriodorus*), garraixka (*Melissa officinalis*) eta albahaka limoiusaina (*Ocimum x citriodorum*). Limoi tanke-rako usaina du *Artemisia abrotanum*-ek ere. Hori asentsio-belarraren lehengu-



Ezkai limoiusaina (*Thymus x citriodorus*), edozein landare saltegitan aurkitzeko moduko euli uxatzaile bikaina.

ANDREY KORZUN-CC BY SA

sua da, *Artemisia absinthium*. Azken horrek limoitik oso urrun dagoen usaina hedatzen du, baina intsektuak izutzeko ere erreminta ederra da.

Aliazeo jendea (*Allium sp.*), tipularrak eta baratxuria ere usainez ondo hornitutakoak dira, eta intsektu jende gehienarentzat kiratsa dutenez, uxa-uxa! Antzeko lana egiten dute menda sendikoek (*Mentha sp.*); familia ugaria osatzen dute, eta denek dute usain sarkorra, guretzat gozoak direnak usain keruak dira eulientzat.

Nikotina txarra dela ere badakite euliek, inork eskolan erakutsi beharrik gabe. Loretarako, apaingarri erabiltzen den tabako-belarra (*Nicotiana sp.*) ez dute ikusi ere egin nahi. Antzera jokatzen duten izpilikuarekin (*Lavandula angustifolia*), lantanarekin (*Lantana camara*) eta usaineko geranioekin (*Pelargonium roseum*, *Pelargonium graveolens*...)

Gu usainez jantzi, ingurua lorez eta hostoz dotoretu eta euli jendilajea uxatu, a zer pagotxa! ■



ARGIA 2017ko egutegia

**Ez beldurrik izan datorrenari...
eskatu orain 2017ko ARGIAren egutegia
eta irailean eskuratuko duzu**

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

Egutegia

9€

50€

Egurrezko
taula
egutegia
opari



PINU ETA EUKALIPTOARI ALTERNATIBAK

Bestelako basogintza posible da



Garazi Zabaleta
@tirikittrann

“Basoari tratu oso txarra eman diogu azken urteetan, baina kontuan izan toki askotan tratu bortitz horren ondorioak ikustean hasi direla alternatibak sortzen”. Euskal Herrian momentu horretan gaudela uste du Keko Alonso biologoak, alegia, basogintzaren baitan bestelako ereduak martxan jartzeko une egokia iritsi dela. Eta horretarako lanean dabil, hausnarketa bultzatzen eta kontzientziak pizten.

Gaztetatik hasi zen biologo asturiarra bere inguruko basoetan gertatzen ari zenaz arduratzen. Han eukaliptoen monolaborantza izan zen erabateko protagonismoa hartu zuena, inguruko paper-fabriken mesedetan eta tokiko baso aniztasunaren aurka. Euskal Herrian, dudarik gabe insignis pinuak bete du paper hori: *Pinus radiata*.

Gure bazterrak, pinuz beteak

Gipuzkoako eta Bizkaiko baso azalaren %70 inguru insignis pinuaren monolaborantzek hartzen dute egun. Zuhaitzez hitz egin beharrean basoez hitz egingo bagenu, hariztia (*Quercus robur*) Gipuzkoan galtzeko arriskuan dagoen landare formazioa dela kontatu digu biologoak.

Euskal Herrian pinuarekin gertatu dena, hala ere, ez da salbuespena. XIX. mende erdi-bukaeratik Europa guztian

antzeko moduan eman da prozesua, ideia berarekin: kalitate erdi-baxuko zuhaitzak azkar sortzea, egurretarako edo paperetarako erabiltzeko.

Alonsok, beste biologo edota ekologo askok bezala, monolaborantzako zuhaitzen esparruei ezin zaiela “baso” deitu adierazi du. “Basoa ekosistema bat da guretzat, organismo askoren multzoa da, baldintza naturalekin. Gizakiak egoera natural hori hainbeste aldatzen duenean, ekosistema izateari uzten dio”.

“Radiata burbuila”

Etxegintza burbuilarekin alderatu daiteke insignis pinuarekin gertatu dena, Alonsoren ustez: “Denek atera dute puska pinuen monolaborantzatik: landatzen duenak, zerratzen duenak, erretzen duenak, paper bihurtzen duenak... Orain, ordea, burbuila lehertzen ari da, prezioak asko jaitسي direlako, besteak beste”.

Krisi/aukera hori aprobetxatu beharra dago biologoaren ustez, egoerari buelta emateko eta benetan bestelako basogintza baten alde egiteko. Berak argi du: badago alternatibarik. 50-60ko hamarkadetan nekazaritza ekologikoak bizi zuen egoerarekin alderatu du egungo basogintzaren momentua. Garai hartan nekazaritza eredu hori bazterrekoa zen, ez zeukan ia indarririk eta bazirudien ezinezko izanzen zela pausoak ematea. “Ez da erraza izanzen, baina bide berri horiek irekitzeko jendearen presuntasuna beharrezko izango da”. ■



BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 €

Harpideentzat: 19,50 €



ALTZA PORRU

Marraskilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,

“mattin” Martiarena, Ainara Azpiaz,

Antton Olariaga, Zaldieroa,

Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 €

Harpideentzat: 18 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus

☎ 943 371 545

ZAHARTZEN NAIZENEAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazuastabarrena

Laracor (Irlanda), 1699ko uda. Jonathan Swift idazle, politikari eta elizgizon irlandarra jaioterrira itzuli zen, eta hama-bost eliztarreko kongregazio txikiaren ardura hartu zuen Dublinetik 32 kilometrorra dagoen herrixkan. Lan gutxi zuenez, lorategia zaintzen, bikarioetxea berregiten eta, besteak beste, zahartzaroz hausnartzen ematen zuen denbora.

Artean, 31 urteko Swift gazteak ez zeukan libururik argitaratuta, mende laurdena falta zen *Gulliverren bidaiak* (1726) bere lanik ezagunena amaitzeko, eta mende eta erdi haren aurreikuspen gaitasun harrigarriaz jabetzeko; *Gulliverrek bidaiak* nobelan Marteko ilar-giak izan zituen hizpide, baina, ofizialki, Marteren bi satelite naturalak, Fobos eta Deimos, 1877an aurkitu zituen Asaph Hall astronomoak.

Hala ere, ordurako gizon zentzuduna zela ezagun zuen, zahartzarora iristean izan nahi zuen jarreraz egindako hausnarketak erakutsi bezala. Paper batean eskuz *When I come to be old* (Zahartzen naizenean) izenburua idatzi zuen, aldamenean urtea (1699), eta, ondoren, honako zerrenda hau:

“Ez naiz emakume gazte batekin ez-konduko.

Ez dut gazteen konpainia onartuko, gazteek benetan nirekin egon nahi dutenean izan ezik.

Ez naiz ezatsegina, betiluna nahiz mesfidatia izango.

Ez diet iseka egingo egungo ohiturei, esamoldeei, modei, gizakiei zein gerrei.

Ez ditut haurrak gogoko izango, ~~eta ez diet niregana hurbiltzen ere utziko.~~ (Egileak berak eskuizkribuan urratua).

Ez diet istorio bera pertsona berdinei behin eta berriro kontatuko.

Ez naiz diruzalea izango.

Duintasuna edo garbitasuna zainduko ditut, ezatsegina izateko beldur bainaiz.

Ez naiz zorrotzegia izango gazteekin, eta haien gaztaroko erokeria eta ahulez-iek in barkabera izango naiz.

Ez diet mirabeei edo bestelako alproja berritsuei jaramonik egingo.

Ez diot inori gehiegizko aholkurik emango eta enbarazurik egingo, besteek eskatzen ez badute.

Zenbait lagun onek puntu hauetatik zein eta zertan ez ditudan betetzen esatea nahi dut, eta horren arabera nire jarrera zuzendu.

Ez dut gehiegi hitz egingo, batez ere nire buruaz.

Ez dut iraganeko nire edertasunaz, indarraz edo damekiko esku onaz arrandia egingo.

Ez dut emakume gazteengandik lausengurik onartuko eta ez dut sinetsiko haiek ni maite nazaketenik, *et eos qui hereditatem captant, odisse ac vitare*



CHARLES JERVAS

Jonathan Swift (1667-1745)

[eta herentzien bila doazenak gaitzetsi eta saihestu nahi zituela, alegia].

Ez naiz baikorra ez dogmatikoa izango.

Ez naiz arau hauek guztiak betetzen tematuko, azkenean bat bera ere beteko ez dudana susmoa baitut”.

Egile batzuek diote bizitzako azken 15-20 urteak depresioak jota eman zituela Swift. Beste batzuen ustez 1738an hasi zen gaixotasun seinaleak ematen eta 1742an enbolia batek hitz egiteko gaitasuna eta gainerako buru-ahalmenak galtzea eragin omen zion. Kontua da haren beldurrik handiena, ahalmen mentalen urritasuna, gauzatu zela, eta gaztaroan idatzitako zerrenda ganoraz betetzeko aukerarik ez zuela izan. 1745ean hil zen, 77 urte zituela. Eta haren azken nahiak behintzat bete zituzten ingurukoek. Pobreen artean banatzeko eta zoroetxe bat eraikitzeko erabili zituzten Swiften ondasunak. ■



B
Bilbao

www.bilbaoeuskaraz.eus



Karel Sterckx (kamiseta gorrikoetan eskuinekoa), Flandriako lagun independentistekin, 2014ko urrian ARGIAra opari eta guzti egin zuten bisitan.

KAREL STERCKX, ARGIAKOAK

Euskal Herria ulertzeko euskaraz ikasi duen flamenkoa



Itsaso Zubiria Etcheberria
@itsasozubiria

Lagun bat baino gehiago du ARGIAK Euskal Herriatik kanpo. Karel Sterckx da horietako bat, 38 urteko flamenkoa. Hamabost-hogei urte izango dira euskara ikasten hasi zela eta aspalditik ezagutzen du gure proiektua. Baina nola iristen da flandriar bat gure herriarekin eta gure hizkuntzarekin horrelako harremana izatera?

Volksunie Flandriako alderdi autonomistaren gazteriaren nazio-batzordeko kidea zen Sterckx 90eko hamarkadan, nazioarteko harremanetako zuzendaria, hain justu. Bazuen, beraz, Euskal Herriarekin traturik. Lizarra-Garaziren eta Irlandako bake prozesuaren garaia ziren eta orduan mutikoak sentitzen zuen Euskal Herriarekiko eta Ezker Abertzalearekiko gertutasun bat. Gainera bazen Donapaleun bizi zen Flandriako apaiz bat, eta hark bi urtean behin Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko festa antolatzen zuen. Hala, gerturatzen joan zen, eta piztu zitzaion Euskal Herria ezagutzeko gogo.

Nola ezagutu, ulertu benetan herri bat, ordea, bere hizkuntza jakin gabe?

Karelek ezagutu nahi zuen Euskal Herrian zer gertatzen zen, eta horretarako euskaraz publikatutako testuak irakurri nahi zituen, itzulpenen edo beste hizkuntzetan gureaz idatzitakoen beharrik izan gabe.

Autodidakta hasi zen bere lehen hitzak ikasten Assimil metodoaren *Le Basque Unifié* liburuxkarekin, eta entzumen garaiko euskal musikarekin landuz. 2003an Lazkaoko Maizpide barnetegira etorri zen eta lazkaotarren artean murgildu zen, behin euskara menderatzen hasita Ordiziako Herriko Tabernan lanean hasi zen arte. Denboraldi bat pasata itzuli zen berriz Flandriara, euskara ikasita.

ARGIAko harpidedun egin da orain bizpahiru urte, lehendik ezaguna badu ere. Dio ARGIA proiektuaren independentzia, aniztasuna, aberastasuna gusztatzen zaizkiola eta horregatik egin zela harpidedun. Euskal Herriko gaurkotasuna jarraitzeko eta bere euskara maila mantentzeko balio dio Karel Sterckxi ARGIAk. ■

Mozal Legea ez aplikatzea erabaki du Eusko Legebiltzarrak

Giza Eskubideen, Berdintasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeak aho batez onartu du –PPk salbu– Mozal Legea Araba, Bizkaian eta Gipuzkoan ez aplikatzeko konpromisoa.

ARGIAk alderdi politikoei proposatuta, EH Bilduren eskutik izan da eztaba-dagai ekainaren 22an Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordean. Legebiltzarrean onartutakoa Eusko Jaurlaritzak bere egingo balu, Ertzaintza litzateke Espainiako Estatuko lehen polizia autonomikoa oso kritikatu den legea ez erabiltzeko konpromisoa hartzen duena. Pasa den urteko uztailetik 2016ko martxora bitartean, Ertzaintzak 3.959 isun jarri ditu Mozal Legea erabiliz, Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuen arabera.

Beste bi puntu ere jasotzen ditu onartutako testuak: Mozal Legearen aurkako jarrera publikoki agertzea eta lege hori Araban, Bizkaian edo Gipuzkoan berriz ere aplikatuz gero zigortuari babesa adieraztea. Gipuzkoako Batzar Nagusiek ekainaren 8an gehiengo osoz (45 bozetatik, 44 alde) onartu zuten testu bera da gaur Legebiltzarrean onartutakoa.

Ertzaintzak Gorka Bereziartuari egindako eraso salatu dute kazetarien elkarteek eta Hekimenek

Euskal Kazetarien Elkarteak (EKE), Kazetarien Euskal Elkargoak (KEE), FAPE Espainiako Kazetarien Elkartearen Federazioak eta Hekimenek elkartasuna adierazi diote ARGIAko kazetari Gorka Bereziartuari, ekainaren 19an lanean ari zela Ertzaintzak egin zion erasoagatik. Ohar baten bidez, EKEk eta KEEK haserre eta kezka adierazi dute "euskal poliziak bere burua profesional bezala identifikatzen duen kideari erasotzeagatik" eta Eusko Jaurlaritzari gertatua ikertzeko eskatu diote.

Jose Rafael Pascual Vilaplana, Bilboko Bandako zuzendari artistikoa

“BADAGO BANDETAN TENDENTZIA SNOB BAT: MUSIKA HOBETO EGIN EZEAN, AZKEN MODAKO MUSIKA EGITEA”

Musikari bakoitzak atrilean, bere partitura, bere zuhaitza. Ahots guztiak biltzen dituen planoa zuzendariak berean. “Nik basoa ikusarazi nahi dizuet”. Besoak astindu eta isilka, inori hegoak moztu gabe biltzen ditu 50 “ego” berera. Eta putz kolektiboa arte bilakatu. Birika erraldoia, perkusio taupadak gehituta. Hori baita haize eta perkusio orkestra. Hori baita banda.



Judith Montero Imaz

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zuk idatzia da “partitura ez da Musika, erre daitekeen paper bat da”.

Gizakiek sorrarazten dute norbaiten musika, une batean, norbaitentzat, non-bait.

“Historikoki herri ezberdinetako kulturek banda baten doinu hotsak izan dituzte euren soinu paisaia” diozu zure webgunean. Eta musika, kultura, hizkuntza... sorterriko ekosistemari guztiz lotuta dau-de zuretzat. Lurrak emandako fruitutzat dituzu artistak ere....

Nire kasuan ere, kulturak berak eraman ninduen. Nik herriko bandan bonbardino, Kontserbatorioan pianoa eta elizan organua jotzen nituen. Eta emakume korua eta dultzaina taldea zuzendu. Piano ikastaro bat egitera joan eta bertan

behera gelditu zenez, zuzendaritzako ikastaroan sartu nintzen. Banda zuzendari holandar famatu bat zen irakaslea, Jan Cober... eta txundituta utzi ninduen. Niretzat guztiz berria zen mundu bat ireki zidan begien aurrean parez pare eta mundu harekin maitemindu egin nintzen. 22 urte nituela, Filologia Klasikoko karrera 3. mailan utzi eta berarekin ikastera joan nintzen Holandara.

Sustraiak oso agerian daude entseguetan; amonek sukaldean garbantzen zuten egindako kroketak sinfonia konplexu bateko garapenaren nondik norakoa ulertarazteko... guztiak balio dizu musikalki oso abstraktua dena azaltzeko.

Bai, bizipen ezberdinek elkarren artean



izan dezaketen lotura bilatzea gustatzen zait eta ahal badut, guztietatik ikastea.

Baina begira, zuri gustatzen zaizun puntua izan da hain justu Coberrekin izan dudana desadostasunik handiena. Bere ustez lotuegi nengoelako nire herrira. Nik uste dut kanpora joateak etxekoa gehiago baloratu arazi didala baina era berean hainbeste bidaiatzeak ikusarazi dit leku bakoitzean bere kulturaz eta hizkuntzaz maiteminduta dagoen jendea dagoela.



Badira zuzendariak diotenak nahiko direla 6 hitz orkestra bat ederki zuzentzeko; azkarrago/mantsoago, ozenago/isilago, luzeago/motzago. Baina zure kasuan, obraren inguruaz hitz egiten diguzu, bere barne egituraz, konposagileen trikimailu eta barne josturak erakusten dizkiguzu. Kontzertua aurrera ateratzea baino urrunago doan lan intelektuala nabarmena da.

Bai, guztiz. Ezagutzen dut Zuzendartza eskola hori eta eztabaidatu dut honi

buruz nire modua gustatzen ez zaien lankideekin. Errespetatzen dut: sei hitz erabiltzen dituzten zuzendariak badaude...eta are gehiago; sei hitz bakarrik erabiltzea gustatzen zaien musikariak ere badaude. Baina nik Santo Tomas bezala, oker nabilela ikusten dudanean aldatuko dut jarrera. Eta nire esperientziak hala erakutsi dit: musikariak obraren heltze prozesuan parte sentiarazi eta nire ideia zein den helarazten diedanean, taldea hobetzen doa

Pascual Vilaplana konposatzaile eta zuzendaria (Muro, Alicante, 1971)

Herrialde batetik bestera, hizkuntza batetik bestera, musika mota batetik bestera, punta-puntako musika taldeak zuzentzen dabil munduan... datozen hiru urteetako agenda eta kontzertuak itxita izan arren, horrek ez dio momentua bizitzea galarazten, ongi antolatzen laguntzen baizik.

eta denborarekin gero eta sendoagoa bilakatzen. Niretzat oinarri-oinarrizkoa den ideia bat dago: zuzendariak ez ditu aginduak eman behar, norbanakoz osaturiko taldea konbentzitu egin behar du. Eta horretarako azalpen bat eman behar badiot taldeari, ba eman egiten diot. Eskaera tekniko bat azalpen lojiko batekin joateak lan ildo bat sortzen du eta denborarekin askoz eraginkorragoa da lan egiteko modu hau. Kontua ez da ni azkarragoa naizela, nik geihago dakidala, ni... kontua da konklusio horretara iristeko lan asko egitea aurretik, hausnarketa sakon bat. Honek ematen dio sendotasuna nire lanari.

Eta horrek autoritate bat ematen dizu. Halako talde handietan... autoritarismoaz baliatzen direnak badaude.

XX. mendean zuzendariaren figuraren garapenak elkarrizketa luze baterako ematen du! Autoritatearekin gertatzen dena da zuzendariari autoritatea aldeztu aurretik suposatzen zitzaizela eta nik ez dut uste horrela denik. Autoritatea zeure lana ongi eginez irabazi egin behar duzu, ez doa zuzendari paperari atxikita nahitaez.

Banda amateur eta profesionalen arteko ezberdintasunez eta bakoitzak gizarteari eskaintzen dionaz galdegin nahi nizuke.

Banda amateurak Europar sorreriko gertakari bat dira. Ekarpen aldetik, antzokietako musika herri txikietaraino eraman dute; garai eta egoera hartan, bestela ez zen iritsiko. Bestalde, musika bandetatik dantza taldeak atera dira, herri musiketako material asko berreskuratu edo oinarri hartuta sortutako musika asko egin da bandetarako... Bandak XIX. eta XX. mendeetan kulturagune

zabalak izan dira, herrietako bizitzan era askotan ekarpenak eginez. Nire aitak kontatzen zidan bere osaba batek tuba jotzen zuela eta testuak ez baina partiturak irakurtzen bazekiela...

Banda amateurren arazoa izan da, nire ustez, garaiak aldatzen joan ahala, ez direla gizartearen pare garatu. Adibidez, nire garaian banda lagunekin elkartzeko lekua zen. Baina gaur egun, aukerak izugarri zabaldu dira, Internet hor dago, kalera ateratzeko dirua... Nik uste dut gaur egun ere, bandek badutela gizarte erantzukizun handi bat. Baina bandak bere jarduna inguruan duen gizartearekin lotu behar du ezinbestean. Eta erakargarri bihurtzeko, ondo neurtu zer eta nola egin.

“Zuzendariak ez ditu aginduak eman behar, norbanakoz osaturiko taldea konbentzitu egin behar du”

Diozu banda asko kanporantz begira jarrita daudela garatzeko nahi horretan...

Globalizazioak kanpokoa imitatzea eraman gaitu, batere hausnarketarik egin gabe.

Gustuko dugun erreperatorio bat entzun eta gurean egin nahi dugu, ongi egiteko maila ote dugun pentsatu gabe. Behar bada pentsatuko bagenu “zer behar dut talde bezala hobetzeko? Ze obra dauzkagu artxiboetan honetarako lagungarri litekeenak?”. Izan ere, obra klasikoekin molaketak jotzetik azken modakoa jotzera

pasa gara, ia ehun urtean bandarako propio idatzitako obrak ezagutu ere egiten gabe. Badago halako tendentzia *sno*b bat, musika hobeto egin ezean, azken modako musika egitean datzana.

Orain hitz egidazu banda profesionali buruz. Zein den ezberdintasuna eta zein funtzio duten gizartearen.

Niretzako, ezberdintasun nagusia gizarte funtzioan dago. Gizarteari erakunde sinfoniko ezberdin bat eskaini behar dio, identitate propio bat duena, aukera artistiko anitzeko ekimenak eskaintzeko gai dena eta beste erakunde sinfonikoen mailan dagoena. Eta entzulegoa hezi eta banda amateurak eraman ezin dituen lekutara eramateko erantzukizuna dauka.

Gatozen Bilbora; nire helburua garapen ildo bat jorratu eta banda zaleek musika talde honetaz duten ikuspegia zabaltzea da.

Zure lehenengo Euskaldunako denboraldiaren izenburua “Bandarekin bazterrak ezagutzen” da. Eta kontzertu bakoitza gai baten inguruan jorratu da. “Klasikoetatik Japoniaraino”, “Pintura ezagutzen”, “Musika berriak ezagutzen”, “Dantza ezagutzen”, “Musika helvetiarrak ezagutzen”...

Banda profesional bat “kultur tresna” bat da nire ustez. Haize eta perkusio orkestra bat. Artea egiteko. Eta gai dena joratzeko musika herrikoia eta garaikidea. Eta beste adierazbide artistikoekin harremanetan dagoena, hainbat sortzaile erakar ditzakeena. Lur sail zabal, eklektiko eta anitz bat delako. Euskaldunako kontzertuetara beste arte eremu batzuetatik etorri den hainbat jende txundituta gelditu da, ez zuten espero banda batek horrela jo zezakeenik. Bil-



Liburu azoka

Donostian, uztailaren 1etik 17ra Gipuzkoa plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



boko Banda hiriko musika erakunde zaharrenetakoa izaki, berrezagutzeko dago oraindik.

Zuzendari on bat izatea da...

Bizitza planteamendu bat kasik. Zeren, zuzendari izateak berarekin ekartzen ditu inplizituki formakuntza ordu eten-gabeak, baina baita jokaera molde batzuk ere. Zure funtzioa partitura errespetuz baina planteamendu ausartez interpretatzea da. Konposatzailearen sorkuntza mundura gerturatu eta zeure galbahetik pasa ondoren transmititzea. Eta hori talde lana eginez. Pertsonen lan egiteak dakarren alde konplexu zein zoragarriekin.

Umorerik, ze lan serioa!

Egia esan, ez dut umorerik falta eguneroko bizitzan ere! Umorea, ongi erabili-

ta, komunikatzeko bide bat da. Zuzendari zakar, lotsagabe, harro eta agintariak ez du lekurik gaurko gizartean.

"Ikigai" deitzen diote japoniarrek: izateko arrazoia, zure lekua munduan, grina... Zein da zure "ikigai" hori? ("Irrikagai" esan beharko nuke euskaraz?)

Nik uste dut bakoitzak baduela bere papera munduan, baina ez norberarena besteena baina hobe delako. Bakoitzak badugu izaera bat, alde onekin zein txarrekin, baina honek oreka bat sortzen du besteekin batera. Orkestra handi bat bezala, mudua musika-tresna ugari osatua dago, bakoitza bere kolore eta izaerakoa. Eta gogo baldin badugu eta elkarrekin komunikatzeko gai bagara, guztion artean arte lan bateratu, sendo eta eder bat osa dezakegu. Zuzendariok elkar ulertu ahal izateko bideak sortzen

jakin behar dugu. Nire ikigaia nire bukuarekin hasi eta inori min eman diezaiokedan lekuan amaitzen da. Egoera bakoitzean niretik onena ematen saiatzea dela esango nuke.

Behar dugunaz... artikuluan diozu "behar-bada ongizate estatu deitzen dioten horren arduradunek usteko zuten emozioak ez direla premiazko produktuak eta eza-gutza eta herriaren hazkunde kulturalak euren posizio pribilegiozkoa erauzi dezakeela".

Eguberri goiz batez idatzirikoa dut, ondo altxa nintzen, kar, kar... Nik uste dut krisi garaietan urgentea ez denari kentzen zaiola lehenik laguntza. Eta artistikoa ez da urgentea. Baina gogoeta hau egiten dut hain justu kontrako lekura iristeko; noski, galdera bada haur bati janari beroa jarri ala Euskaldunan kontzertu bat egitea, ez dago zalantzarik. Baina horrek ezin du ekarri beti kulturatik kentzea. Eta beharrez moztortzea beste interes batzuk... Beharbada kultura ez baita urgentea baina bada premiazkoa bizitzarako. Ez da huskeria pentsatzea nola eraiki gizarte bat non bizirauteaz gain, pixka bat zoriontsuago bizi garen.

Bukatzeo...

Uste dut garrantzitsua litzakeela pentsatzea ez dagoela ongizate gizarterik, denontzat ez bada. Zaila da zoriona zer den azaltzea baina beharbada bakoitzari egitea suertatu zaigun lana dakigun ondoen egiten saiatzea izan daiteke, munduaren jardunari bakoitzak bere esfortzua eskainiz. Bakoitzak baduela leku bat sentitu (nahiz eta pentsatu, hitz egin, sinistu ezberdin) eta beretik onena emanez. Hain xumea eta hain eraginkorra, era berean. ■

**GURE
UNIBERTSITATEA,
ZURE
UNIBERTSITATEA**

www.ehu.eus



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Izan gaitezen



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga



Munstro abertzalea

IGNAZIO AIESTARAN

Elkar, 2003

Munstro abertzalea da, momentuz behintzat, Ignazio Aiestaranen poesia emaitza bakarra. Munstroa. Ez dakigu oraindik naturaren legeez at eraturiko izaki biziduna, edo jarduera intelektual eta ahalmen handiko pertsona. Baina munstroa. Nolakoa? Bestetik ez bada, “nik neuk daramadan munstro hori”: nortasun-agiri frankistek eman izena duena, euskara maitale duena, etorkizuna izanik etorkizunik ez duena, kalean eskubiderik aldarrikatu ezin eta kale-borroka guztiak kritikatzera kondenatu dutena. “Denok barruan daramagun munstrokeria hori”. Eta abertzalea. “Abertzalea izan ez arren”. Alegia: “abertzalea naiz,/ Lurreko txoko honetatik/ilargia/ nola ikusten den/ gustuko izatea/ abertzale izatea bada”. Bestela ere esan daiteke: frantsesen artean espainiarra, espainiarren artean baskoa, baskoen artean nafarra, nafarren artean putobaskoa, etc.

Ez bakarrik nolakoa munstroa eta zergatik abertzalea. Galdera gehiago ere badira: Zer da herria? –“Denok ulertzen dugun/ eta inork mugatu ezin duen zerbait”. Zer naiz ni? –“Orojakele artean ezjakina,/ bizidunen arteko hildakoa”. Kristo hemen jaio balitz: Jainkoak esango zukeen ez zela bere semea. Eta galderarik ez denean, da sententzia, zuzen-zuzenean urdailera doana: salatzailea –“hautestontzien demokrazia/ beirazko kutxa bezain hauskorra da”–, ekologista –“orain baskoak garela/ hasiera batean basokoak ginelako”–, herrijasotzailea –“Eraikuntza nazionala: Guggenheim museoa”–, beti gure miseriak agerian uzten dituen –“21 dira/ 1987an Bartzelonako hipermerkatuan/ jarritako bonba batek

asasinatuak,/ zu eta ni bezalako 21 lagun hil”–. Poema batzuek, egia da, ideia on batek –Itoizko urtegiak ari dela: “Ura dakarrenak/ urrea darama”–, akaso ez dute behar besteko garapenik, edo hitz joko hutsean geratzen dira: “burujabetza lortu ordez/ burujabetza izango dugu”. Baina, oro har, eta urte gutxi batzuk joan diren arren, gaurkotasunik batere galdu ez duen bilduma da.

Eta liburua hor geratuko balitz, ez litza-teke gutxi. Baina, ez, badu bigarren zati bat, epilogo: “Irakurketari jarraituz gogoetan”, Joxe Azurmendirena. “Poesiak ez digu puskailetan dagoen etxea birreraikiko. Eraman-garriagoa egingen digu, hala ere, gure patua”. Unibertsaltasunaz, diferentziaz, nongotartasunaz, mestizaiaz, gatazka politikoaz, poesiaz –“Poeta bat hori da: behin eta berriro moztarok erori egiten zaizkion bat”–. Labur, Azurmendi, distirant, bere onenean. Esan daiteke, beraz, bi liburu direla bakarrean. Bukatu aurretik, ordea, Azurmendiren azken gomendioa: “Bere burua norma deklaratu daukan mundu anormal honetan, izan gaitezen, bada, munstro”. ■

Ignazio Aiestaran
Iruñeko poeta.



» **TELEGRAMA**

Ekainaren 26tik gozatu daiteke **Bilboko Kalealdia**: Bizkaiko hiriburuko kaleko antzerki eta arteen jaialdiak uztailaren 2ra bitartean ekintzaz beterik du egitaraua *STOP* Jazzarekin lotutako udako zitak hemen dira: uztailaren 1etik 5era **Getxo Jazz**, uztailaren 1ean Gasteizko **Jazzaharrean**, ekainaren 29tik uztailaren 1era Bermeoko **Jazzber...** eta Donostia eta Gasteizko uztailleko zitak falta dira oraindik! *STOP* Flamenkoa eta txalaparta uztartuko ditu **La Pulga** artistak Berrizen uztailaren 1ean, Elizondo plazan *STOP*

» **KONTZERTUA**

Amaiera argitsua



Montse Auzmendi

Bernstein eta Prokofiev-en obrak

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Juarj Valčuha.

Bakarlaria: Jennifer Koh (biolina).

Gasteizko Principal Antzokia; ekainaren 16a.

Juarj Valčuha zuzendaria Eslovakiako Bratislavan jaioa da, 1976an.

Korear jatorriko Jennifer Koh biolin jotzaile iparamerikarra; Illinoisen jaioa, 1976an.

Joan zaigu aurtengo Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren denboraldia. Benetan denboraldi gozagarria izan da, eta era berean, luzimendu gehiagorekin jo zuten azken saioan. Osagarri guztiek sortu zuten jakin-mina: Juarj Valčuha zuzendariak, Turingo RAIren Orkestra Sinfoniko Nazionaleko zuzendaria hain zuzen ere, Jennifer Koh biolin jotzaile estatubatuarrek, oso txalotua bere jaioterrian, eta egitarau kuttunak.

Leonard Bernsteinen *Serenade* obrak, tinbrika zoragarria izateaz gain, badu barruko kutsu intelektual bat. Esaten da konpositoreak lan hau egin zuela Platonen *Oturuntza* irakurri ondoren eta,

horrela, Greziako bost pertsonaia ospetsuren maitasunari buruzko ideiak islatzen dira obraren bost mugimenduetan. Esan bezala, orkestrazio dotore eta delikatu du biolin eta orkestrarako maisu lan honek. Bakarlari gisa, Jennifer Koh biolin jotzailea aritu zen, eta publikoa zoratu egin zuen. Talentu ikaragarria du andre honek, eta jotzeko era biotuosistikoa, zalantzarik gabe. Halere, saio honetan, hotz utzi ninduen. Kapazitate tekniko eta, noski, interpretatzeko gaitasun aparteko horretatik ez ninduen gehiegi ukitu.

Saioaren bigarren zatian, XX. mendeko sinfonía zoragarrienetako bat oparitu ziguten Euskadiko Orkestrakoek: Sergei Prokofieven *5. Sinfonia si bemol maiorrekoa, op. 100* hain zuzen ere. Lan oparoa da alde guztietatik. Erritmika eroa, tinbrika guztiz distiratsua; obra disfrutagarria da goitik behera. Valčuha zuzendariak jakin zuen mugimendu bakoitzari berezko karakterea ematen. Lehenengo mugimendua, *Andantea* herroko eta noblea iritsi zitzaigun; bigarrena, *Allegro moderatoa*, aldiz, jostalari eta ironikoa; *Adagio* hirugarren mugimendu lirikoan ederki islatu zuten *crescendo* makabroa, eta azkenik, *Allegro giocoso* bukaerako mugimendua, koloretsu, erritmiko, eta Prokofievek hainbeste maite zituen disonantziez betea entzun genuen. Nabaria da Juarj Valčuhak eza gupen sakona duela Prokofieven soinu munduaz. Halaxe frogatu zuen saio eder honetan eta halaxe gozatu genuen. ■



Haize bohemio landuak

EMANALDIA

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko orkestra. Zuzendaria: Vicent Egea.
Maiatzak 3, Baluarte auditorioa.
Brahms, Bizet eta Dvoraken obrak.



Julen Leuza Izkue
@JulenLeuza

Ohikoa da kurtso amaieran, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren programaren barnean, kontzertu bat kontserbatorioko orkestrak ematea. Aurten erronka ez zen makala: J. Brahmsen *Haydnen gai baten gaineko bariazioak*, Bizeten *Carmen*, *lehen suitea*, eta Dvoraken *8. sinfonia*.

Orkestra, kontserbatorioko ikaslez osatua eta Nafarroako Orkestrako errefortzu frankorekin (sokan batez ere, hai-zean tronpak soilik). Zuzendari lanetan Vicent Egea valentziarra, kontserbatorioko banda eta orkestra irakaslea eta La Pamplonesa udal bandako zuzendaria.

Brahmsen *Haydnen gai baten gaineko bariazioak* lanak eman zion hasiera emanaldiari. Momentu batzuetan deskoordinazio arriskuak sumatu baziren ere, orkestrak obrari eutsi zion zortzi bariazioetan. Indar falta sumatu zen maiz, bereziki biolontxeloetan, soka familiako besteen azpian geratu baitziren. Haize-egurra fin. Konpositore alemaniarrek hau bezalako piezekin ongi demostratu zuen klasikoen lengoia eta estiloa menperatua zuela, eta hala sumatu ahal izan genuen guk. Keinu polita, austriarra imitatuz amaierako akordea sarritan (ohi baino gehiago) egitea.

Georges Bizeten *Carmen*, opera frantziarraren lanik garrantzitsuen eta historiako operarik ezagunenetariko bat da. Operaren zati instrumental nagu-



siekin Ernest Guirauden bi suite egin zituen orkestrek errezitaldietan jo ahal izateko. Kontserbatoriokoak lehena eman zuen Baluartean. Orkestrazio fresko eta folklore ukitei ezinbesteko faktore bat batu zitzaion: gai aunitz sobera ezagunak zirela publiko guztiarentzat. Haize metala gainetik geratu zen pieza batzuetan (akaso gainontzeko orkestraren indar faltagatik), baina bestenaz ongi, nabari zen aspalditik prestatua zegoela. *Intermezzoak* eman zuen emanaldiaren momenturik goxoena, preludio-Toreador gaiak amaiera ederra eman ziolarik lehen zatiari.

Atsedena eta gero, pastelaren zatirik garrantzitsuenak. Antonin Dvoraken *8. sinfonia sol maiorren*. Aitortuko dut sentikortasun berezi bat dudala Dvorakekin. Maite dut orokorrean XIX. mendeko bigarren erdialdeko Europa eta Errusiako konpositore askoren folklore eta musika tradizionalean oinarritutako lana (Bela Bartokekin muturrera iritsiko zen joera), eta Dvorakek sinfonia eta dantza eslaviarretan lortu zituen emaitzek beti txunditu naute. Bere lurraldeko (Bohemia, gaur egungo Txekia) musika eta melodia tradizionalak garai-ko estilo erromantikoarekin ezin hobe uztartu zituen, orkestraziorako talentu ikaragarria beti lagun.

8. sinfonia Amerikako Estatu Batuetan 9. famatua estreinatu baino hiru

urte lehenago konposatu zuen, Europan oraindik. Luzea izan gabe (40 minutu motz), lau mugimenduetan energia, sentsibiltatea, indarra eta melodia ikaragarri onak (buruan ordutan izaten ditugun horiek) jaso genituen, haize tradizional nabariaz lagunduak. Orkestra, askoren harridurarako, oso fin. Oraingoan txeloak indar handiagoz (bateren bat gehiago balitz, hobe), biolinak energia biziz eta kalitatezko egur eta metal sekzioak. Orkestra tradizional handiek (Berlin eta Vienako filarmonikoak bereziki) beti tronpetak bikoiztu egin dituzte hau bezalako obretan, bolumena eta indarra ikaragarri handituz. Kasu honetan ez zen hala izan (bi tronpeta ziren soilik), baina ongi erabakia, orkestra ez baitzen bolumen maila horretan mantenduko. Atzean zegoen lan handia agerian geratu zen egun horretako interpretazioarekin. Xume, baina duin.

Merezitako txalo zaparradaren ondoren, *Carmen* operaren preludioa errepikatu zuten bisean, saioari akabera emanez.

Badakigu non gauden. Badakigu Nafarroako Orkestra Sinfonikoa ez dela Euskadikoa, eta kontserbatorioekin berdina gertatzen da. Hala ere, poztasun handia da horrelako sorpresak jasotzea, musika orkestralak hain garrantzi gutxi duen hiri honetan horrelako saio on bat entzutea, eta gozatzea. Hala bedi hemen-dik aurrera. ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Unai Iturriagak 2013an Amurrion botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas I*. Gaia: Atxilotua izatea baino ezkutatuta bizi izatea nahiago duela esan du.

Oraintsu gertatua da hori
neu ere ____ naiz adi
sei urte dira kondena eta
arrazoia dago ____.
Lehenago entzun diot tabernan
____ ta besteari
"Sei urteगतिक zertako baina
izkutaketetan ari?".
Aspaldi hontan errspetua
galdu zaio ____.

Kondena batzuk dira hain ____
ja ezin garela harritu
batzuk diote "Sei urte dira
____ ze ba ez kunplitu?".
Gazteak dira borrokalari
hori al dute ____?
Ezkutatzea erabaki ta
nik ____ dut ametitu
kartzelarako ____ berak
ezkutarazi ____.

Ez dira lehenak hori bistan da
lehenago da ____
Samaniegotaz gogoratzen naiz
Martinetaz ____ sarri.
Ezkutaketa horren ____
badaude mila aldarri
gizarte ____ honentzako
izan nahi dute ____
ta ezkutatzeko horrek egingo
dituela ikusgarri.



Urko Lasarte-CC By SA

I	R	A	G	A	R	R	I	G	V	D	O	R	T	R
O	O	E	T	A	G	F	H	A	D	D	U	F	U	C
T	I	Z	O	Z	E	J	I	A	A	R	P	U	G	M
I	I	U	O	U	E	E	H	C	S	I	O	R	A	I
M	G	L	E	D	Z	A	H	P	J	C	L	U	E	S
Z	H	R	I	H	S	N	B	G	V	U	P	D	B	
F	Z	H	A	V	O	J	R	F	U	J	E	U	L	I
H	Z	A	N	M	J	G	I	R	R	A	D	E	Z	Z
O	V	V	A	D	T	U	P	I	H	B	H	P	P	F
B	J	I	E	L	G	N	U	T	A	D	E	S	B	B
B	D	G	J	Z	V	C	I	Z	D	P	B	B	E	A
B	O	I	R	A	L	E	Z	T	R	A	K	O	H	I
N	A	B	A	T	A	R	I	A	N	S	T	P	A	T
J	B	E	R	A	Z	E	H	I	C	I	J	J	R	I
Z	M	S	N	D	E	L	I	T	U	G	C	M	M	T
L	M	O	T	I	B	O	C	D	T	Z	B	V	U	U

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										

Ezker-eskuin:

1. Telebistako agertoki. 1102 erromatar zenbakiz.
2. Nafarroako urtegia. Bost bider bi. 3. Seme-alabak dituen emakumea. Dozena erdi. Ihi. 4. Esnatu, atzarri. 5. Aurreko tokira. 6. Zilarra. 1501 erromatar zenbakiz. Nekazariaren lanabes. 7. Umil, apal.
... kanpoko, ezohiko. 8. Erasorako tresna. Koipea.



Goitik behera:

1. Azpia. Kutxa, arka. 2. Hegaztien gorputzaren kanpo-estalkia. Gurtzea. 3. **Argazkiko minerala**. 2000 erromatar zenbakiz. 4. Titanioa. Zuhaitz mota. 5. Mota bereko arrainen multzoa. 6. ... Urrats, Iparraldeko ikastolen jaia. 7. Laztan, kuttun. Zakur. 8. Zentimetro. Paperak-eta itsasteko ahi. 9. Joan den urtea. Azkar. 10. Laboreen alea ehoz ateratzen den hauts moduko. Gabezia.

Sudokua

Erraza

4			6		5			
9			8	3		2	6	4
		3	4	9	2	5		
8		9					7	2
2	3				4			1
		6	2	8	1	7		
1	5	4		7	9			8
			5		6			9

Zaila

	3		7					
	2			4		6		
		5	1					7
					5	4		6
2	8						1	5
6		9	3					
4					8	7		
		7		3			8	
					7		4	

Soluzioak

Oraintsu gertatua da hori/neu ere **egon** naiz adi/sei urte dira kondena eta/arrazoia dago **argi**./Lehenago entzun diot tabernan/**batari** ta besteari/"Sei urteगतिक zertako baina/izkutaketetan ari?"/Aspaldi hontan errespetua/galdu zaio **kartzelari**./Kondena batzuk dira hain **luz**/ja ezin garela harritu/batzuk diote "Sei urte dira/**beraz** ze ba ez kunplitu?"/Gazteak dira borrokalari/hori al dute **delitu**/Ezkutatzea erabaki ta/nik **behar** dut ametitu/kartzelarako **notitio** berak/ezkutarazi **baikitu**./Ez dira lehenak hori bistan da/**iragarri**/Samaniegotaz gogoratzen naiz/Martinetaz **ere** sarri./Ezkutaketa horren **atzean**/badaude mila aldarri/gizarte **sedatu** honentzako/izan nahi dute **zedarri**/ta ezkutatzeko horrek egingo/dituela **ikusgarri**.


1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Josep Maria Esquirol. La Résistance (intimoa, hori bai)



Filosofia garaikidean aditua da Esquirol, Universitat de Barcelonako irakaslea. Publikazio ugari atera du gaiaz; baina azkenak egin du, publiko zabalago baten begietara behintzat, ezagun: *La resistència íntima*. Giza izaerari buruzko hausnarketa, gertutasunaren esperientzia bat proposatzen du, egunerokoarekin harreman estua duena.

“Eguneroko bizitza bigarren mailako gauza bihurtu da”



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga

ARGAZKIAK: NÚRIA JUAN SERRAHIMA

Nihilismoa

“Mendebaldeko zibilizazioari eragiten dion krisi bat bizi dugu, batzuek erabiltzen dute nihilismo hitza. Bada, gertutasunaren filosofia honek erantzun egin nahi dio nihilismoari. Aurre egin nahi dio mugatutasunera gerturatuz. Etengabeko itzuleraren orde, etxera itzultzearekin. Botere nahiaren orde, izan dadila erresistentzia; supergizonaren orde, gertutasuna; baieztapenaren orde, arazotzea; etorkizunaren orde, memoria”.

Erresistentzia aipatzen duzu izenburuan. Zeri baina?

Sakabanatzaile, higitzaile den gauza orori, galbidera garamatzanari. Giza izaerarekin zerikusia duten faktoreak dira, batetik: babesik gabe gaude, egurats gorrian. Keinu natural ulergarria da, beraz, geure buruari babes ematea, sakabanaketa horri aurre egingo dioten eremuak sortzea. Eta, gero, gizartearen araberako faktoreak daude. Horien aurrean erresistentzia jarrera izatea komeni da. Faktore sozial horiei izena ematen diet nik: aktualitatea.

Aktualitatearen nagusitasuna.

Teknikazioarekin zerikusia duena, baina ez da bakarrik teknikazioa, ez da berezko arazoa. Aktualitatea oso alda-korra da, adi egon behar gara etengabe. Dena zurruputzen du, baina era berean dena higitzen, oso iheskorra baita: ez du ezer egonkortzen, ez dio esperientziari leku egiten. Aktualitatea da faktore higitzaileetako bat, xurgatuta-edo gauzka, eta on baino gehiago egiten digu kalte.

Alienazio modutzat duzu, inoizko eragin-korrena.

Aginte eraginkorrenak nabarmendu gabe gertatzen direnak dira, inor ohartu gabe. Aginte bat ikusgarri denean seinala daiteke; menderatzailea izan daiteke, noski, baina bila dezakezu estrategia-ren bat erabat harrapa ez zaitzan. Aldiz, aginte sotilagoek erabat hartuta zaituzte batzuetan, eta ia ez zara ohartu ere egiten. Zentzu horretan, aktualitatearen aginte moduko bat dago, eraginkortasun tiraniko izugarria duena.

Erresistentzia jarrera nolakoa da?

Erne egotea eskatzen du, esna, sakanaketak inbadi zaitzan ez uztea. Jarrera hori, ordea, ez da proiektzioaren, proiektu baten lantzearen aurkakoa. Elkar elikatzen duten bi mugimendu dira: erabakiak hartzeko, abenturak izateko jakin behar da zeure baitara biltzen, babesean jartzen, epelera itzultzen. Existitzea da kanpora ateratzea, baina babes-teko aukera dagoelako atera zaitezke kanpora. Erresistentzia da, beraz, existentziaren baldintza.



"Aktualitatearen aginte moduko bat dago, eraginkortasun tiraniko izugarria duena".

"Intimo" hitza ere agertzen da izenburuan. Baina ez barrukoa, baizik eta gertukoa.

Barrua eta kanpoa, dikotomia hori murrizketa bat da. Aldiz, "intimo" harago doa, eta gertuko, hurbil, familiako esan nahi du. Hurbiltasun jarrera bat adierazten du: eremu intimoak, familiartasun esferak, zuk zeureganatu dituzun horiek dira; ez jabegoaren ikuspuntutik, baizik eta identifikazioarenetik. Zure gelako leihotik ikusten duzun paisaia, pertsona gertukoenak –odol lotura izan edo ez, noski– eta abarrekoak.

Etxea, adibidez. Bachelardek zioen: "Etxe txiki bat behar dugu etxe handiaren barruan".

Zerk egiten du etxea etxe izatea? Leku goxoa dela, abegikorra, biltzeko, berregiteko, suspertzeko aukera ematen duena. Konfiantzaren berreskurapena ahalbidetzen du. Bildu beharra dugu indarra berreskuratzeko. Etxeak hori ematen dizu, ez paretek, bertan dagoen giza berotasunak baizik, elkarri ematen diogun berotasunak. Etxea besteak dira,

eta zu zeu, denon artean gauzatzen den artikulazio hori.

Eguneroko bizitza, ez dakit filosofia garaikideak aski azpimarratzen duen.

Filosofia garaikideak ez du enfasi handirik jarri egunerokotasunean, bizimodu soilenean. Bada pentsamendu lerro bat, erromantizismoak, existentzialismoak ibili dutena, zeinak dioten garrantzitsuena erabakiak hartzea dela, zeure burua proiektatzea. Eta eguneroko bizitza bigarren mailako gauza bihurtu da, grisago, homogeneoago, inpersonalago. Ez nago ados: eguneroko bizitzaren aspektu asko, ohiko keinu direnak, oso sakonak izan daitezke.

Soila dena, nondik begiratzen zaion, goren izan daitekeela, alegia.

Badira eguneroko bizitzaren gauzak, keinuen errepikapenarekin zerikusia dutenak, agurrak, janaria prestatzea, mahaiaren bueltan jartzea, ondo begiratzen badituzu, berebizikoak direnak. Askotan automatismoak iruditu arren, hazka egin eta gure izatearen zera sakonak erakusten dizkizute. Eguneroko

bizitzari erne begiratuta, aspektu horiek deskubritzen dira, denok bizi baina sarri ohartu gabe pasatzen direnak.

Eta zer erantzun konkretu eman faktore higarzaileei?

Memoria eta imajinazioa. Memoria erantzun bat da, denbora iragateak dakarren higiduraren aurrean: dena pasatzen da, baina zerbait gogoratzen saiatuko naiz. Memoria etxe bat da, beraz. Eta babesten gaituzten figurak sortzen ditugu imajinazioarekin; irudi poetikoa, adibidez, kontsolagarri zaigu, babesten gaitu bizitzaren zailtasunengandik.

Akaso ez daude beren onenean.

Gaur dena da informazio trukea, hizkera hotz, funtzional, teknikoa. Eta irudiaren erresuma, publizitatearekin lotzen duguna, irudien inbasio hori. Sorkuntza poetikoaren antipodetan daude, noski, ez dute irauteko funtziorik. Babestuko zaituen gauza bat bilatzen baduzu, ordea, nahi duzu irautea, beroki bat, etxe bat, hitz batzuk, sakabanatzeari aurre egiteko horrela. ■



DENOK BATERA DEZAKEGU

AZKEN ORDUKOA: EH Bilduk izena aldatuko du

Azken hauteskundeetan lortutako emaitza txarrak hobetzeko lanean hasi dira koalizioako kideak. EH Bilduko alor instituzionaleko iturriek jakinarazi du-


tenez, ilusioa berreskuratzeko asmoz, koalizio abertzaleari izena aldatzea erabaki dute. Denok Batera Dezakegu izango da hemendik aurrera.

SAREAN ARRANTZATUA

Gazte gara gazte eta gaude konforme



Hezkuntza behar dugu



EAJko milaka kide tratamendupean Bizkaiko hauteskunde emaitzak ezagutu eta gero

Bizkaiko larrialdietako zerbitzuek gainezka egin zuten ekainaren 26ko gauean, herrialdean hauteskundeak Unidos Podemosek irabazi zituela jakindakoan ondorez sentitu ziren jeltzale oldeak kolapsatuta. "Gure etxean ez genekien Bizkaian beste alderdi batzuk zeudenik eta!", adierazi zuen Iragarne Etxebarriak, gaixotutako baten arrebak, Galdakaoko ospitaleko atean. Handik metro gutxira, artean sustoagatik zurbil-zurbil aurkitu genuen Deunoro Madariaga betidaniko jeltzale jatorra: "Ez dakigu zer den okerrago, irabazi digun alderdia ezkerrekoa izatea edo espai-

niarra izatea... Bueno, bai, badakigu, baina tira...".

Bestalde, New Hampshireko sismologia zerbitzuak 7,6 graduko lurrikara labur "baina oso bortitza" detektatu zuen Sukarrietan, hain justu Sabino Aranaren hilobia dagoen lekuan, gutxi gorabehera hauteskunde emaitzak jakin ziren unean. Hainbat lekukoren arabera "biraoak eta zarata arraroak" ateratu ziren hilobi barrutik, baina EHUko zientzialari talde bat oso eszeptiko agertu da bertsio horrekiko: "Euskarak ez du biraorik eta!", argudiatu dute.



ARGIAKOEN (G)UNEA

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTZALETASUNA
EKONOMIA SOZIALA
ELIKADURA BURUJABETZA

INGURUMENA

INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria



Bestelako mundu bat amesten dugu ARGIA, ekonomia klasikoaren kontzeptuak edozeren gainetik kokatuz ingurumena arriskuan ipintzen ez duen jendartea. Horregatik, berebiziko arreta eskaintzen diegu mundu jasangarri baten alde Euskal Herrian eta munduan egiten diren ekimenei, eta ez hori bakarrik: gu ere ahalegintzen gara, geure egunerokoan, balore horiek txertatu eta sustatzen.

UZTAILEKO ZOZKETAK



Cristina Enea fundazioaren Hazien ugalketari buruzko eskuliburua (5 liburu)

www.cristinaenea.org/haziera



Ekologistak Martxan-en materiala (5 saski)

www.ekologistakmartxan.org



ENEEK-en materiala eta Ekolurra harpidetza (5 saski)

www.eneek.org

EKAINEN
SARITUAK

LABORANTZA GANBARAREN MATERIALA: FATIMA GONZALEZ (DONOSTIA), UNAI GOIKOETXEA (BEASAIN), JOSE LUIS HORMAETXEA (BERMEO)
JAKION SASKIA: NEKANE ARIZ (USURBIL), IRUNE ITURBE (ARETXABALETAK)
BIZI BARATZEA: BEÑAT ELIZARAN (ITUREN), ARRATE HERNANDEZ (PASAI ANTZO), IBON GARATE (GASTEIZ), MIREN ITURRIOZ (ANDOAIN), MARIAN GOIKOETXEA (IRUÑEA)
MUGARIK GABE GKEREN MATERIAL SASKIAK: XABIER ZUAZURREGI (ZIZUR NAGUSIA), JULEN GOIA (DONOSTIA), IBON ZALDUA (ORMAIZTEGI)

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

JAKOBA ERREKONDOREN LIBURU BERRIA

Jakoba Errekondoren "BIZI BARATZEA" liburutik abiatuta, baratzea mundu askotarako ataria da. Oraingoan irudia eta komikia nagusi. Zortzi komikigile handien eskutik: Antton Olariaga, Asisko, Ainara Azpiazu, Mattin Martiarena, Joseba Larratxe, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi eta Unai Iturriaga. Maialen Lujanbioren sarrerarekin



ESKURA EZAZU AGORTU BAINO LEHEN

☎ 943 371 545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
bizibaratzea.eus